

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZUZENBIDE  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE DERECHO

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EKONOMIA  
ETA ENPRESA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE ECONOMÍA  
Y EMPRESA

# **ERREFUXIATUEN NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAREN ERRONKAK EUROPAR BATASUNAREN BALIOEN KRISIAREN AURREAN**

**Gradu Amaierako Lana**

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea

Gradu bikoitza

2022/2023 Ikasturtea

**Egilea: Olaia Alonso de la Varga**

**Zuzendaria: Oscar Abalde Cantero**



*Llegó un momento en el que preferí morir por mis derechos  
que vivir sin ellos.*

Errefuxiatu programaren erabiltzailea

## AURKIBIDEA

LABURDURAK .....	4
1. SARRERA .....	5
2. NAZIOARTEKO INSTRUMENTUEN IBILBIDE HISTORIKOA .....	6
2.1. Lehen instrumentuak (1921-1946)	
2.2. 1951ko Genevako Hitzarmena	
2.3. 1967ko New Yorkeko Protokoloa	
3. 1951KO GENEVAKO HITZARMENEAN SAKONTZEN .....	8
3.1. Errefuxiatu kontzeptua hitzarmenaren arabera	
3.2. Erabiltzen diren terminuen interpretazioa	
3.3. <i>Non-refoulement</i> printzipioa	
4. DUBLIN III ERREGELAMENDUA (604/2013 ERREGELAMENDUA).....	18
4.1. Estatu kide konpetentea aukeratzeko irizpide eta mekanismoak	
4.2. Erregelamenduak pairatzen dituen arazoak	
4.3. Erregelamenduaren eraginkortasun erreala	
5. ASILORAKO ALTERNATIBAK .....	24
5.1. Nazioarteko Babesaren instrumentuak	
5.2. Arrazoi humanitarioak	
6. ASILO ESKAERAREN PROZESUA .....	28
6.1. Asilo eskubidea Espainian	
6.2. Europar zuzentarauen transposizioa	
7. EB-TURKIA AKORDIOA .....	33
7.1. EB-Turkia akordioak jasotzen dituen baldintzak	
7.2. Turkia hirugarren Estatu seguru gisa	
8. ONDORIOAK .....	39

9.	BIBLIOGRAFIA .....	42
9.1.	Doktrina	
9.1.1.	Liburu eta monografiak	
9.1.2.	Aldizkari espezializatuetako artikuloak	
9.2.	Legedia	
9.2.1.	Nazioarteko legedia	
9.2.2.	Barne legedia	
9.3.	Jurisprudentzia	
9.3.1.	Nazioarteko auzitegiak	
9.3.2.	Barne auzitegiak	
9.4.	Bestelako dokumentuak	

## **LABURDURAK**

ACCEM: Asociación Comisión Católica Española de Migración

CEAR: Comisión Española de Ayuda al Refugiado

DESC: Derechos económicos, sociales y culturales

EBFT: Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatur

EBJA: Europar Batasunaren Justizia Auzitegia

EBOEG: Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna

GEEA: Giza Eskubideen Europako Auzitegia

GEEH: Giza Eskubideen Europako Hitzarmena

NATO: North Atlantic Treaty Organization

NBE: Nazio Batuen Erakundea

OAR: Oficina de Asilo y Refugio

SECA: Sistema Europeo Común de Asilo

## 1. SARRERA

Komunikabideek etengabe erakusten dute haien herrialdeetatik ihes egiten duten horiek bizi duten drama; hala ere, gehienek ez dituzte ezagutzen pertsona horien eskubideak eta Estatuak haiekiko dituzten betebeharrak, ni pertsona horietako bat nintzelarik. Hori izan zen GRAL hau garatzera eramán ninduen oinarrizko arrazoa, gaiaren inguruko ezjakintasuna. Euskarri teorikoetan soilik oinarritu beharrean, babes eskatzaileak diren pertsona hauetara hurbiltzearen beharra somatu nuen. Hala, unibertsitateko praktikak Gurutze Gorriko errefuxiatuen programan egiteko zortea izan nuen, aholkularitza juridikoaren eremuan. Babes eskatzaileak ziren pertsonekin lankidetzan aritu nintzen 4 hilabetez, haien bizipenak eta kezkek nirekin partekatu zituztelarik. Lan hau garatzeko erabilitako iturriak anitzak izan dira, baina esan bezala, bibliografian jaso daitekeenaz haratago, praktikak arloaren inguruko ikuspuntu ezberdin bat jorratzen lagundu dit. Hilabete horietan nire susmoak baieztatu nituen: legeak ez zituen behar beste defendatzen pertsona horiek, eta sarritan errealitatea ez zetorren bat paperak jasotzen zuenarekin, alegia, sistema osoan zehar hutsuneak daudela ohartu nintzen. Horregatik, gai zehatz edo espezifikoa bat landu beharrean, komenigarriagoa iruditu zitzaidan gaiaren inguruko nazioarteko esparruaren ikerketa orokorra egitea, besteak beste, nazioarteko instrumentuak, asilo prozesua eta EBren papera aztertuz, ondoren hauen atzean zeuden interes ezkutuetan sakontzeko aukera izanik.

Hurrengo orrialdeetan Genevako Hitzarmenarekin batera, nazioarteko beste hainbat instrumentu legal aipatuko dira, baita Giza Eskubideek arloan duten garrantzi berezia eta Estatuak haiekiko hartzen duten papera. Beraz, nahikoak al dira nazioarteko zuzenbideak dituen instrumentuak gaur egungo migrazio mugimenduei aurre egiteko? eta hala izatekotan, zelan justifikatzen da *errefuxiatuen krisia* deiturikoa?

## 2. NAZIOARTEKO INSTRUMENTUEN IBILBIDE HISTORIKOA

### 2.1. LEHEN INSTRUMENTUAK (1921-1946)

Nahiz eta errefuxiatu-estatutua, mundu mailan, nagusiki, 1951ko Konbentzioak eta Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1967ko Protokoloak arautzen duten, garrantzitsua da aurretik horiek eragin zituzten itunak aztertzea. Estatu modernoa sortzearekin, subiranotasunaren printzipioa finkatzearekin eta estatu-nazioa agertzearekin batera, asiloa arriskuan dauden atzerritarren nazioarteko babes bihurtzen da. Aurretik Estatuak errefuxiatuei babes modu independentean eta beren arau eta interesetatik abiatuta eman bazieten ere, bi mundu-gerren arteko aldiak egin ziren lehen ahalegin hitzartuak, zentzu horretan, Nazioen Elkartearen esparruan. Nazioarteko komunitatearen interesa piztuta, materiaren inguruko nazioarteko zenbait akordio egin ziren. Tresna horiek, gaur, 1951ko hitzarmenaren 1. artikuluko A ataleko 1) paragrafoan jasotzen dira. Honetan besteak beste 1926ko maiatzaren 12ko edota 1928ko ekainaren 30eko akordioei egiten zaie erreferentzia, baita Errefuxiatu Izaerari buruzko 1933ko Konbentzioari, errefuxiatu errusiarrei eta armeniarrei erantzuteko eginga, eta 1936ko behin-behineko akordioari, Alemania nazitik zetozen errefuxiatu juduei erantzuteko egindakoa. Gaur egun lehen instrumentu horiek aplikagarri zaizkien pertsona asko ez dauden arren, batzuetan gerta daiteke "statutory refugees" deituriko pertsonekin topo egitea (1951ko Hitzarmenaren aurreko nazioarteko tresnek babestutako errefuxiatuak)<sup>1</sup>.

Ekintza horiek une hartan errefuxiatuei babes politiko eta juridikoa deitu zitzaiena bermatzeko ahaleginean oinarritu ziren, mundu gerraren osteko gatazken ondorioz jatorrizko Estatuak babesik ez zutelako. Data horretarako, errefuxiatuen talde eta kategoria espezifikoaren arabera lan egin zen, baina orduan ez zen definizio orokorrik lortu estatutu hori talde horietatik kanpoko beste pertsona batzuei aplikatzeko, eta aldi horretan Estatuak ez zuten epe luzerako konpromisorik hartu. Hori posible izan zen Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren<sup>2</sup>.

---

<sup>1</sup> URCELAY LECUE, M<sup>a</sup> Cruz. (2016ko martxoak 15). "Acuerdo de dudosa legalidad entre el Consejo Europeo y Turquía sobre la crisis de los refugiados". *LegalToday*. 3. or.

<sup>2</sup> MACHADO CAJIDE, Landy. (2013). "Aproximaciones sobre el surgimiento y evolución histórica del estatuto de los Refugiados". *Anuario Digital CEMI*. 5. or.

## 2.2. 1951KO GENEVAKO HITZARMENA

Bigarren mundu-gerraren ondoren, errefuxiatuen arazoa konpondu ez zela ikusirik, errefuxiatuen egoera juridikoa definituko zuen nazioarteko tresna berri baten beharra somatu zen. Errefuxiatu-egoera jakin batzuei erantzun zieten akordioen ordean, errefuxiatutzat hartu behar zirenen definizio orokorra jasotzen zuen edukia behar zen. Hau oinarri izanik, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa sortu zen, 1951n Genevan Errefuxiatuen Estatutuaren inguruko Hitzarmena garatuz, migrazio-segmentu partikular horri nazioarteko babesa emateko. Bigarren Mundu Gerrak eta Gerra Hotzak gauzatutako asilo egoera guztiei erantzuna emateko instrumentua izanik, denborazko muga gehitu zioten. 1951ko muga-data hori, Estatuak, konbentzioa onartzeko unean, beren betebeharrak gerora sor litezkeen egoeretara mugatzeko zuten nahiaren ondorioa izan zen<sup>3</sup>.

## 2.3. 1967KO NEW YORKEKO PROTOKOLOA

Denbora pasa ahala eta errefuxiatu egoera berrien aurrean, 1951ko hitzarmeneko xedapenak errefuxiatu berri horiei aplikatzeko beharra sentitu zen. Ondorioz, 1967an New Yorken sinatu zen Genevako Konbentzioaren Protokolo Gehigarria, alegia Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloa, zeinaren izateko arrazoia hasierako mugak ezabatzea zen. Hala ere, denborazko muga izan zen erabat erretiratu zena, soilik Europatik edo gainerako mundutik zetozen errefuxiatuen artean aukeratzen zuen muga geografikoa ez baitzen denentzat erretiratu, atxikimendu berrientzat baizik. Alegia, protokoloaren aurretik Hitzarmenaren parte zirenentzat eta muga horri eutsi nahi ziotenentzat mantentzen zen<sup>4</sup>. Protokoloa tresna independentea da, eta hari atxikitzea ez dago konbentzioko Estatu Kideei mugatuta. Hala ere, behin protokolo horri atxikita, Estatuak 1951ko Konbentzioaren xedapen substantiboak aplikatzera behartzen dute beren burua.

---

<sup>3</sup> *Ibidem.* 15. or.

<sup>4</sup> LORCA CÁNOVAS, Patricia. (2016). *El acuerdo entre la Unión Europea y Turquía y el concepto de tercer país seguro aplicado a Turquía*. Comillaseko Unibertsitate Pontifizea. 7. or.



### 3. 1951KO GENEVAKO HITZARMENEAN SAKONTZEN

#### 3.1. ERREFUXIATU KONTZEPTUA HITZARMENAREN ARABERA

1951ko Genevako Hitzarmenaren 1. artikuluko A) atalean, inklusio-klausulak jasotzen dira; lehenengo paragrafoa, konbentzioaren aurreko tresnek babestutako errefuxiatuei buruzkoa da, alegia, *Statutory refugees* deiturikoak; eta bigarren paragrafoan, errefuxiatu terminoaren definizio orokor bat jasotzen da:

*“1951ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatutakoen ondorioz, eta arraza, erlijio, nazionalitate, gizarte-talde jakin bateko kide izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko beldur oinarrituen ondorioz, bere nazionalitateko herrialdetik kanpo egotea eta ezin izatea edo, beldur horien ondorioz, herrialde horren babesa jaso nahi ez izatea; edo nazionalitaterik ez izatea eta, gertaera horien ondorioz, lehen bere ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo egotea, baina ezin izatea edo, beldur horiek direla eta, herrialde horretara itzuli nahi ez izatea.”<sup>5</sup>*

#### 3.2. ERABILTZEN DIREN TERMINUEN INTERPRETAZIOA

Definizioaren analisi egoki bat egiteko, ezinbestekoa da honek jasotzen dituen kontzeptu edo terminuei erreparatzea. Hasteko, **1951ko muga data** dugu, pertsona bat errefuxiatu bihurtzen den "gertakizunei" dagokiona, eta ez pertsona horrek errefuxiatu izaera hartzen duen datari, ezta bere herrialdetik irten zen datari ere. Baliteke errefuxiatu batek bere herrialdetik alde egin izana mugako data baino lehen edo geroago, baldin eta jazarria izateko beldurrak mugako data baino lehenagoko "gertaerak" baditu kausa gisa.

Nolanahi ere, 1967ko protokoloaren ondorioz, data horrek bere esanahi praktikoaren zati handi bat galdu du. Izan ere, denborazko muga erabat ezabatu zen, eta ondorioz, terminoaren interpretazio horrek 1951ko Konbentzioko kide diren Estatu gutxi batzuei baino ez die interesatzen, aurrerago 1967ko Protokoloari atxiki ez ziren horiei hain zuzen ere<sup>6</sup>. Desberdin gertatu zen Europatik edo gainerako mundutik zetozen errefuxiatuen artean

---

<sup>5</sup> Itzulpen propioa, autoreak egindakoa.

<sup>6</sup> HERNÁN SANZ, Ismael. (2016). *La Protección Internacional del refugiado, especial referencia al marco jurídico europeo*. Valladolideko Unibertsitatea. 17. or.

aukeratzen zuen muga geografikoarekin, ez baitzen denentzat ezabatzen, baizik eta soilik atxikimendu berrientzat, protokoloaren aurretik Hitzarmenaren parte zirenen horiei erabakitzeko aukera zabalduz<sup>7</sup>. Hau hala izanik, Konbentzioak hurrengo jasotzen du bere 1. artikuluko B) atalean: *1) Konbentzio honen xedeetarako, A ataleko 1. artikuluan jasotako "1951ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatutakoak" hitzak, honela ulertu ahal izango dira: a) "1951ko urtarrilaren 1a baino lehen Europan gertatutakoak", edo b) "1951ko urtarrilaren 1a baino lehen Europan edo beste nonbait gertatutakoak";*

Estatu kontratugile bakoitzak adieraziko du adierazpen horri eman nahi dion irismena, konbentzio honen ondorioz bere gain hartutako betebeharre dagokienez. Gainera, atal beraren bigarren parrafoaren arabera, formula onartu duen Estatu kontratugile orok edozein unetan zabaldu ahal izango ditu bere betebeharrak.

***Jazarria izateko beldur oinarrituak*** definizioaren funtsezko zatia da, errefuxiatuaren kalitateak eskatzen duen elementu nagusia alegia. Beldurrak behar bezain motibatuta daudela ulertuko da jatorri jakin bateko pertsona batek ez duenean bere Estatuak babesten. Beldurra kontzeptu subjektiboa da, hau da, batez ere eskatzailearen adierazpenen ebaluazioa galdatzen du, jatorrizko herrialdean nagusi den egoerari buruzko analisisa baino gehiago. Izan ere, uste izatekoa da pertsona batek ez duela normalean etxetik eta herrialdetik alde egiten horretara behartzen duen arrazoi larriren batek behartua ez bada. Hau hala izanik, pertsonaren izaerak, aurrekariak, eraginak edota egoera ekonomikoak jazarria izateko beldurra "oinarrituna" dela ondorioztatzera eramán genezake.

Jazarpena izango da pertsona baten bizitzaren edo askatasunaren aurkako mehatxua existitzen denean, ***arraza, erlijio, nazionalitate, gizarte-talde jakin bateko kide izateagatik edo iritzi politikoengatik***. Beste mehatxu edo ekintza kaltegarri batzuk jazarpenaren baliokide izatea, kasu bakoitzaren inguruabarren arabera izango da, lehen aipatutako elementu subjektiboa barne. Nolanahi ere, gizarte askotan, tratu-desberdintasunak daude, neurri handiagoan edo txikiagoan, haien taldeen artean. Diferentzia horien ondorioz tratu txarragoa jasotzen duten pertsonak ez dira nahitaez jazarpenaren biktimak. Horrela gertatuko da bereizkeria-neurriak funtsean ondorio kaltegarriak izango balituzte. Jakina, jatorrizko herrialdean pertsona bati ezarritako zigor edo epaiketa pertsekuzioaren baliokidea den

---

<sup>7</sup> Adibide argiena Turkia da, zeina 1951ko Konbentzioaren eta 1967ko Protokoloaren parte den arren, ez zuen muga geografikoa ezabatu, aurrerantzean EB-Turkia akordioa ahalbidetu zuena.

zehazteko, beharrezkoa izango da, halaber, dagokion herrialdeko legeriara jotzea, lege bat Giza Eskubideen printzipio aitortuekin bat ez etortzeko aukera baitago.

Hori kontuan hartuta, errefuxiatutzat hartzeko, pertsona batek goian adierazitako arrazoietako batek jazarriko dion beldur sendoa izan behar du. Berdin dio pertsekuzioa arrazoi horietako edozeinengatik edo horietako biren edo gehiagoren konbinazioagatik gertatzen bada.

Arraza-arrazoiengatik jazarria izan dela ulertuko da, arraza-bereizkeriaren ondorioz pertsona baten giza duintasuna urratzen denean, Giza Eskubide oinarritzkoenekin bateraezina den puntu bateraino, edo arraza-oztopoak jartzeak ondorio larriak badakartza berekin. Oro har, arraza-talde jakin bateko kide izate hutsa ez da nahikoa izango errefuxiatu-egoeraren erreklamazioa justifikatzeko. Hala ere, gerta daiteke, taldea dagoen barruti bereziengatik, kide izate horrek jazarpenaren beldur izateko nahikoa izatea<sup>8</sup>.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna ere jasotzen du<sup>9</sup>, eta, beraz, Konbentzioak hau jaso nahi izan du ere. Erljio arrazoiak eragindako jazarpenak hainbat forma har ditzake, esate baterako, komunitate erlijioso bateko kide izatea debekatzea, edota neurri larriak hartzea erlijio jakin baten praktikagatik edo komunitate jakin bateko kide izateagatik. Are gehiago, egoera berezi batzuetan, kide izate hutsa arrazoi nahikoa izan daiteke. Hori bereziki nabarmena da erakunde erlijioso eta estatalen artean alde txikia dagoen gizarteetan.

Konbentzioak jasotzen duen hirugarren jazarpen kausa, nazionalitatea da. Estatu baten barruan bi nazio-talde edo gehiago (etnikoak, linguistikoak) elkarbizitzeak, gatazka-egoerak sor ditzake, baita jazarpen-egoerak edo jazarpen-arriskuak ere. Nahiz eta kasu gehienetan jazarriak izateko beldur diren pertsonak gutxiengo nazional batekoak izan, kasu batzuetan gehiengo nazional baten kide den norbait minoria menderatzaile baten jazarpenaren beldur izan daiteke.

---

<sup>8</sup> ACNUR. *Manual de Procedimientos y Criterios para Determinar La Condición de Refugiado en virtud de la Convención de 1951 y el Protocolo de 1967 sobre el Estatuto de los Refugiados*. 62-64. orr.

<sup>9</sup> Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 18. artikulua: "Pertsona orok pentsamendu-kontzientzi eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, ihardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere".

Gizarte-talde jakin bateko parte direla ulertuko da antzeko aurrekariak, ohiturak edo gizarte-egoera dituzten pertsonak. Arrazoi honengatik jazarria izateko beldurrak askotan bat etor daitezke beste arrazoi batzuegandik ere jazarria izateko duten beldurrarekin. Errefuxiatuaren figura definitzen duen artikulua literaltasunak babeslekua eskatzeko arrazoiak asko mugatzen dituela dirudien arren, interpretazioetarako oso irekia dagoen artikulua da<sup>10</sup>. Gaur egun, gizarte-talde jakin baten barne, adibidez, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak edota orientazio sexualaren arrazoiagatik alde egiten dutenak sar ditzakegu. Izan ere, Konbentzioan jazarpen arrazoi gisa jasotzen ez badira ere, adostuta dago asilo-kausa gisa aitortzea, eta hala jasotzen da, gainera, 2011ko Errekonozimenduaren Zuzentarauan<sup>11</sup> eta 2009ko Asiloaren Legean<sup>12</sup>.

Hitzarmenak iritzi politikoak jasotzen ditu jazarpen arrazoi gisa ere. Botere publikoek ez bezalako iritzi politikoak izateak ez du berez justifikatzen errefuxiatu-izaera eskatzea, eta eskatzaileak erakutsi behar du iritzi horiei eusteagatik jazarria izateko beldurra duela, hots, agintariak onartzen ez dituzten iritziak dituela. Eskatzaileak ez du frogatu beharrik bere jatorrizko Estatuko agintariak bazekitela bere iritzien berri hura utzi aurretik. Baliteke pertsona horrek bere iritzi politikoak ezkutatu izana eta inoiz diskriminaziorik edo jazarpenik jasan ez izana. Oinarritutako beldurren irizpidea beraz, jarrera politiko jakin bat duen eskatzaileak bere herrialdera itzuliz gero aurre egin beharko liokeen ondorioen ebaluazioan oinarrituko litzateke. Hori, bereziki, *sur place* deiturikoari aplikatzen zaio<sup>13</sup>. Alegia, bere herrialdea uztean errefuxiatua ez zena, baina ondoren, kanpoan egon bitartean, izaera hori lortzen duena bere jatorrizko herrialdean eman diren inguruabarren ondorioz.

---

<sup>10</sup> ALDEKOA MONTOYA, Paula. (2018). *Aproximación a la crisis migratoria en la Unión Europea: medidas y sus consecuencias*. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). 10. or.

<sup>11</sup> (30) “Beharrezkoa da, halaber, «talde sozial jakin bateko kide izatea» jazarpen-arrazoiaren kontzeptu komun bat sartzea. Talde sozial jakin bat definitze aldera, kontuan hartuko dira, eskatzaileak jazarriko duen beldur oinarridunekin zerikusia duten neurrian, eskatzailearen sexuarekin zerikusia duten gaiak, genero-identitatea eta sexu-orientazioa barne, zenbait tradizio juridikorekin eta ohiturekin lotuta egon daitezkeenak; esate baterako, mutilazio genitala, esterilizazio behartua edo abortu behartua.” (Itzulpen propioa, autoreak egina).

<sup>12</sup> 2009ko Asilo Legearen 3. artikulua: “Arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, iritzi politikoengatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik, generoagatik edo sexu-joeragatik jazarriko duten beldur funtsatuak direla-eta, errefuxiatu-izaera aitortzen zaio bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dagoen eta herrialde horren babesa jaso ezin duen edo, beldur horien ondorioz, jaso nahi ez duen pertsona orori, edo nazionalitatearik izan gabe eta lehen ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo dagoen aberriagabeari, arrazoi berberengatik ezin badu herrialde horretara itzuli edo, beldur horren ondorioz, ez badu itzuli nahi, eta 8. artikuluko baztertze-kausaren batean edo 9. artikuluko ukatze- edo errebotatze-kausaren batean sartuta ez badago.” (Itzulpen propioa, autoreak egina).

<sup>13</sup> ACNUR. “*Manual de Procedimientos...*”, op. cit., 62-64. orr.

Bost jazarpen arrazoi horiek dira Hitzarmenak jasotzen dituenak. Beraz, interpretazio ebolutiboetara irekita dagoen artikulua den arren, ate asko ere itxi ditzake, ez soilik nazioarteko babes-eskaera ebatziko duen Estatuaren borondateak paper handia hartzen duelako, baizik eta hainbat pertsona eskatzaileri ez zaielako aitortzen babesa bost arrazoi horien barne aurkitzen ez direlaren babespean<sup>14</sup>. Honek Giza eskubideek jasandako sailkapenean du jatorria, izan ere, enuntziatu ziren une historikoaren arabera sailkatu izan dira sarritan. Lehen mailako Giza Eskubidetzat sailkatutakoak askatasunarekin dute zerikusia; bigarren mailakoak, berriz, DESC izenez ezagutzen direnak (gaztelaniako siglengatik), ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideak dira. Garapenerako, bakerako eta ingurumenerako eskubideak, berriz, hirugarren mailakotzat jotzen dira. Horregatik, DESC babesteko tresnak ez dira beti islatu barne-legedietan, Espainiako Estatuan, esaterako. Eskubide zibil eta politikoak funtsezkotzat jotzen dira konstituzioan, eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturek galdagarritasun txikiagoa bermatzen dute<sup>15</sup>.

Horregatik ez zaie estatus bera aitortzen, eta praktikan errefuxiatu ez estatutario hauek *etorkin* terminuarekin ezagutzen dira: *etorkina* da, definizioan agertzen ez diren arrazoiengatik, bere herrialdea *borondatez* uzten duen pertsona. Beraz, izaera ekonomikoa besterik ez badu, emigrantea da, eta ez errefuxiatua. Salbuespeneko eran, neurri ekonomikoek biztanleriaren sektore jakin bateko baliabide ekonomikoak suntsitzen dituztenean (adibidez, talde etiko edo erlijioso espezifiko bati merkataritza egikaritzeko eskubidea kentzen zaionean edo gehiegizko edo diskriminatzaileak diren neurriak ezartzen zaizkionean), biktimak errefuxiatu bihur daitezke, egoeraren arabera, herrialdea uztean. Etorkin ekonomikoaren eta errefuxiatuaren arteko bereizketa batzuetan jatorrizko herrialdean hartutako neurri ekonomikoen eta politikoen arteko bereizketa bezain zehaztugabea da.

Nazioarteko Zuzenbidean aditua den Enrique Santiago abokatuak honela laburbiltzen du<sup>16</sup>: "Pertsona bati bere herrialdean bizirauteko gutxieneko eskubide ekonomiko eta sozialak ukatzen zaizkionean, pertsona errefuxiatua da. Ukatzen ez bazaio eta eskubide horiek

---

<sup>14</sup> Lan honetan, gehienetan, babes-eskaera terminua erabiliko da asilo-eskaera erabili beharrean, hurrengo orrialdeetan azalduko den bezala. Nazioarteko babesa asiloa baino zabalagoa da, eta nahiz eta Espainian asilo eskaera egin, galdatzen dutena nazioarteko babesa da, ondoren asiloa ukatuta beste era batzuetako babesa aitortu ahal baitzaie.

<sup>15</sup> CELIS SÁNCHEZ, Raquel eta AIERDI URRAZA, Xabier. (2018). *¿Migración o desplazamiento forzado? Las causas de los movimientos de población a debate*. 22 or.

<sup>16</sup> *Ibidem*. 24. or. (Raquel Celis Sánchezek eta Xabier Aierdi Urrazak eginiko elkarrizketa pertsonala, ondoren lanaren 24. orrialdean jaso)

eskuratzeako aukera badu, kalitate okerragoan, baina gutxieneko estandar egokiekin, orduan, emigratzailea da".

Ukaezina da boluntario edo ekonomiko gisa sailkatzen diren migrazio-mugimendu asko, behartutzat jo daitezkeela nazioarteko tresnen argitan. Esaterako, urtero arrazoi naturalen ondorioz 20 milioi pertsonak baino gehiagok beren etxea utzi eta beren herrialdeko beste toki batzuetara joan behar dute, muturreko gertaera klimatikoaren intentsitate eta maiztasun gero eta handiagoak eragiten dituen arriskuengatik (hala nola, eurite handiak, lehorte luzeak, desertifikazioa, ingurumen-degradazioa, zikloiak edo itsas mailaren igoera)<sup>17</sup>. Pertsona horietako askok mugak zeharkatu behar dituzte hondamendien eta klima-aldaketaren testuinguruan, eta beste askok, hala egin beharko dute ere etorkizun hurbilean, desagertzearen dauden irlen biztanleak besteak beste<sup>18</sup>.

Behartutako desplazamendu edo lekualdatze hauek ondorio anitzak dituzte, besteak beste, jabetzak bertan behera uztea, bizimoduak haustea edota ezagutzak eta harreman sozialak galtzea. Behartutako desplazamenduak ikusezintasun integrala dakar berekin: sorlekuan, iritsitako lekuan eta, azkenik, irteteko arrazoiaren ukapenean, lekualdatutako pertsonak edo komunitateak zortetik gabeko pertsona gisa tratatzen baitira.

Lekualdatze behartu horietan egiten den Giza Eskubideen interpretazioaren joera horrek urrakortasun juridikoko egoeran uzten du kapitalismo neoliberalaren eta krisi ekologikoaren testuinguruan garrantzi berezia hartzen ari diren migrazio-mugimenduen zati handi bat. Enpresa transnazional batzuek larriki urratzen dituzte DESC deiturikoak, gobernu batzuen politika publikoetan eragin handia dutelako. Hortaz, kontuan izan behar dugu zein den benetan Estatu batek daukan benetako ahalmena enpresa transnazionalen jardura horiek geldiarazten ahalegintzeko. Are gehiago, Espainiako Estatuak ez die babesik ematen, ezta

---

<sup>17</sup> ACNUR. *Cambio climático y desplazamiento por desastres*.

<https://www.acnur.org/cambio-climatico-y-desplazamiento-por-desastres.html>

<sup>18</sup> Kiribati artxipelago bat da, Australia eta Hawai arteko erdibidean kokatua. Bere uharteek, batez beste, 2 metroko altuera dute itsas mailatik, eta horrek herrialde ahulenetako bat bihurtzen du uren mailaren igoeraren eta klima-aldaketaren beste ondorio batzuen aurrean. 2013an, Kiribati-ko herritar batek, Ioane Teitiotak, Zeelanda Berriko gobernuaren aurkako borroka legalari ekin zion lau urtez, bere jaioterria mehatxatzen duen klima-aldaketaren ondorioz herrialdeetik atera zela adieraziz. Zeelanda Berriko Justiziak uko egin zion eskariari argudiatuz itsas maila handitzeak Kiribati errepublika bizigaitza izatea eragin zezakeela 10 eta 15 urte bitartean, denbora nahikoa zena Kiribatiko Errepublikak esku hartzeko eta, behar izanez gero, populazioa birkokatzeko. Horrek ateak ireki zizkion eztabaida juridiko-politiko interesgarri bati, gaur egun bizirik dirauenari. Informazio gehigarria hurrengo estekan eskuragarri:

<https://lapolisuy.wordpress.com/2022/07/23/kiribati-el-drama-de-los-refugiados-ambientales/>

urraketak Estatuak berak ageriko erantzukizuna duen jardueren zuzeneko edo zeharkako ondorio izanda ere; izan ere, halaxe gertatzen da Espainiako enpresa transnazionalak (Repsol-YPF, Unión Fenosa, ENDESA, Aguas de Barcelona...) edo banku handiek (BBVA, Santander...) atzerrian egiten dituzten jardueretan<sup>19</sup>.

Nazioarteko Zuzenbidea oso ahula da biktimen eskubideen defentsan eta indartsua enpresen defentsan: Merkataritza Askeko Tratatuak, inbertsioen Tratatuak, ustiapen-kontratuek, izugarritzko azkartasunez, moldagarritasunez eta sendotasunez egiten dute aurrera. Hala ere, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean hamarkadak pasa gaitezke zehazten asiloa den, lekualdaketa den, edota zer arauk eragiten dioten eta zeintzuk ez<sup>20</sup>. Nazioz gaindiko enpresen indar politiko eta ekonomikoa ez dago Giza Eskubideen pribatizaziotik eta jabetza-eskubidearen aurrean birbanaketak dakarren guztiaren mendekotasunetik kanpo<sup>21</sup>. Eskubide zibil, politiko, sozial eta ekonomikoak kaltetuak ikusten dira enpresa transnazionalen aurrean, eta horrek berretsi egiten du nazioarteko arauen hauskortasuna. Bestalde, indar juridiko osoa ematen zaio nazioz gaindiko enpresen merkataritza-erregulazioari. Beraz, Giza Eskubideen *arau-ahultasunak* talka egiten du, aurrez aurre, enpresa globalen *sendotasunarekin*<sup>22</sup>.

Premiazkoa da lekualdatze behartuaren definizio inklusiboa adostea, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketa kontuan hartuko duena. Nazioarteko Zuzenbidearen eremuan behin eta berriz errepikatzen den eztabaida da ea akordioa irekitzearen alde egin behar dugun, jazarpen-arrazoi berri horiek barne hartuta, edo Erregelamendu erabat berria sortzearen alde. Araudi berriak egungo irizpideak alde batera utzi beharko lituzke, ez bakarrik jasotako jazarpen-arrazoiak nahikoak ez direlako, baizik eta jada jasotakoak modu desberdinetan interpreta daitezkeelako, babes-eskaera ebatziko duen Estatu bakoitzaren borondateari bide emanez.

Behin definizioak jasotako jazarpen kausak aztertuta, garrantzitsua da jakitea zeri egiten dion erreferentzia ***bere nazionalitateko herrialdetik kanpo egotearen*** baldintzak. Terminoa

<sup>19</sup> CEAR. (2006). *Desplazamientos forzados: los Derechos Humanos desde la perspectiva del Derecho de Asilo*. 57. or.

<sup>20</sup> CELIS SÁNCHEZ, Raquel eta AIERDI URRAZA, Xabier. (2018). “¿Migración o desplazamiento forzado...” op. cit., 30. or.

<sup>21</sup> HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan. (2009). *Las empresas transnacionales frente a los Derechos Humanos: historia de una asimetría normativa*. Hegoa, Bilbo. 247. or.

<sup>22</sup> *Ibidem*. 31. or.

apatridez bestelako nazionalitatea duten pertsoneri dagokie. Hori dela eta, herrialde horretako nazionalitatea duen ala ez zehaztu behar da. Pertsona baten nazionalitatea frogatzea lortzen ez denean, errefuxiatu-izaera apatriden antzeko moduan zehaztu beharko da. Horrela, gatazka etnikoetan edo gerra zibileko egoera bat eragiten duten istilu larrietan, talde etniko edo nazional jakin baten jazarpena herrialdearen zati batean bakarrik gerta daiteke. Egoera horietan, pertsona bat ez da errefuxiatu-izaeratik kanpo geratuko herrialdeko beste leku batean babesa bila zezakeelako, baldin eta, kasuaren inguruabarrak kontuan izanik arrazoizkoa izan ez balitz hala egitea.

Funtsezkoa da eskatzaileak ***ezin izatea edo, beldur horien ondorioz, herrialde horren babesa jaso nahi ez izatea***. Baldintza hori, noski, nazionalitatea duten pertsoneri dagokie. Ezin badu, edo bere herrialdeko agintarien babesari heldu nahi ez badio, errefuxiatua babes hori ez duen pertsona bat da beti. Gerta daiteke, halaber, nazionalitateko herrialdeak eskatzaileari babesa ukatzea. “*Nahi ez izatea*” adierazpenak herrialdeko naziotasunaren agintarien babesa onartzeari uko egiten diotenei egiten dio erreferentzia, guztiz baldintzatuta dagoena “*beldur horien ondorioz*” adierazpenarekin. Izan ere, pertsona batek bere jatorrizko herrialdearen babesa jaso nahi badu, ez da bateragarria izango jazarria izateko beldur sendoen ondorioz herrialdetik kanpo dagoela argudiatzearekin. Izan ere, nazionalitatea duen herrialdeak babesteko aukera dagoenean, ez dago nazioarteko babesaren beharrik eta ez da errefuxiatua izango. Argitu beharra dago, oro har, jatorrizko herrialdeko agintariak egiten dituztela jazarpenak, baina ez da baztertzen biztanleriaren talde edo sektore jakinek ere egin ahal izatea. Kasu horretan, errefuxiatu-estatutua onartu ahal izateko, herrialdeko agintariak jazarpena onartu edo ez ikusiarena egin behar dute. Hau da, beti egongo da Estatuko agintarien nolabaiteko erantzukizuna<sup>23</sup>.

Errefuxiatu definizioaren azken atalak apatridei egiten die erreferentzia. Alegia, “***lehen bere ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo egotea***” adierazpenak “*bere nazionalitateko herrialdetik kanpo*” adierazpena ordezkutzen du. Argitu beharra dago, balitekela apatrida den pertsona herrialde batean baino gehiagotan bizi izana, eta horietako batean baino gehiagotan jazarria izateko beldurra izatea.

---

<sup>23</sup> ALDEKOA MONTOYA, Paula. (2018). “*Aproximación a la crisis migratoria...*” op. cit., 9. or.



### 3.3. NON-REFOULEMENT PRINTZIPIOA

Itzulzeko debekuaren edo *non-refoulement* betebeharra, Genevako Konbentzioaren 33. artikuluan jasotzen da<sup>24</sup>. Artikulu horren arabera, debekatuta dago errefuxiatu edo babes-eskatzaille bat herrialde batera bidaltzea, baldin eta herrialde horretan bizitza edo askatasuna arriskuan badaude arraza, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-talde jakin bateko kide izatea edo iritzi politikoak direla-eta. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) doktrinak eta jurisprudentziak ere debeku bat gehitzen dute, itzulitako pertsonak tortura, tratu anker edo apalesgarriak edo oinarrizko eskubideen urraketa larriak jasan baditza<sup>25</sup>. Printzipioa ohiturazko zuzenbidearen bidetik *Ius cogens* arau bihurtzera iritsi da, eta, beraz, ez du kontrako akordiorik onartzen, eta betebeharraren barruan daude Konbentzioaren parte ez diren Estatuak ere<sup>26</sup>. Izan ere, ulertzen da printzipioaren urrapenak Nazioarteko Babesaren bermerik gabe uzten dituela pertsona errefuxiatuak, baita hura sostengatzen duten nazioarteko itunen urraketa bat dela ere. EB mailan, asilo-eskubidea EBren Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasota dago, baita kanporatzea debekatzea ere, 19. artikuluan jasotzen dena<sup>27</sup>.

Ez itzultzeko printzipioaren babespean egongo dira ez soilik errefuxiatuaren definizioarekin bat datozen pertsona guztiak, baizik eta herrialde batean asiloa eskatu duten pertsona guztiei ere zabaldu ahal izango zaie. Hau da, babes-eskatzaille bat ezin izango da beste herrialde batera itzuli, non jazarpenaren eraginpean egongo litzatekeen, nahiz eta harrera-herrialdean errefuxiatu gisa ezagutu ez.

Praktikak printzipio horren etengabeko urraketa erakusten du. Horrela, CEAREk eta beste erakunde batzuek behin eta berriz salatu dituzte, hainbat txostenetan eta komunikatutan,

---

<sup>24</sup> 33. artikulua: “Kanporatzeko eta itzultzeko debekua (“refoulement”): 1) Estatu kontratugileek, kanporatzearen edo itzultzearen bidez, ezin izango dute errefuxiatua inola ere arraza, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-talde jakin bateko kide izatea edo iritzi politikoak direla eta, euren bizitza edo askatasuna arriskuan dauden lurraldeen mugetan jarri; 2) Hala ere, errefuxiatuak ezin izango ditu xedapen honen onurak alegatu, baldin eta, arrazoi oinarridunak direla medio, errefuxiatua dagoen herrialdeko segurtasunerako arriskutzat jotzen bada, edo, delitu bereziki astunagatik behin betiko kondena jaso izanda, herrialde horretako erkidegoarentzat mehatxua bada.” (Itzulpen propioa, autoreak egina).

<sup>25</sup> Kontzeptu hauen inguruko informazioa 2013ko martxoaren 7an NBEaren Batzar Nagusiak onartutako Ebazpenean: *La tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes*. A/RES/67/161. Eskuragarri: <https://www.refworld.org/es/docid/51e678814.html>

<sup>26</sup> *Non-refoulement* printzipioa *ius cogens* arau gisan sakontzeko informazio gehigarria: BERTOMEU NAVARRO, Andrea (2022). *Origen y fundamentos del principio non-refoulement en el marco del Derecho Internacional de las personas refugiadas*. Aranzadi. 91-96. or.

<sup>27</sup> 19. artikulua: “Babesa ematea, pertsonak bihurtu, kanporatu eta estraditatzeko kasuetan: 1. Debekatu egiten da pertsonak taldeka kanporatzea. 2. Inor ere ezin izango da beste estatu batera bihurtu, kanporatu edo estraditatu estatu horretan heriotza-zigorra, tortura nahiz zigor edo tratu anker edo laidogarriak jasateko arrisku larria badu.”

*beroan egindako itzulketak*, eta salatu dute pertsona asko —bereziki, Saharaz azpikoak— modu kolektiboan espedientatzen direla Hegoaldeko Mugan, abokatuaren laguntzarik jaso gabe eta nazioarteko babesa eskatzeko benetako aukerarik izan gabe, *non-refoulement* printzipioa urratuz<sup>28</sup>. 2018ko abuztuaren 22an ere, Espainiaren eta Marokoren arteko 1992ko onarpen-akordioa erreaktibatu zen, 116 pertsona itzuliz Ceutako hesitik eta 55 Melillatik<sup>29</sup>. CEAREk honako hau adierazi zuen: “Gobernuak ziurtatu zuen indibidualki egin zirela, abokatuaren eta interpretearen laguntzarekin, baina bai CEAREko talde juridikoak bai Herriaren Defendatzaileak salatu zuten prozedura azkar horiek eragotzi egiten dutela arrunckerian dauden edo nazioarteko babesa behar duten pertsonak detektatzea, eta, gainera, urratu egiten dutela beren bizitzak arriskuan egon daitezkeen herrialde bati (Marokori, esaterako) ez itzultzeko printzipioa”<sup>30</sup>.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi zuen Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren aplikazioa ez dela lurraldetarra, eskumen edo jurisdikzioaren araberakoa baizik, eta beraz, eskumena mugetatik kanpo egikaritzen denean —itsas zabaleko ontzi batean esaterako— haren aplikazioa nahitaezkoa izango dela ere<sup>31</sup>. Epaiak berriro gogorarazten du kanporatze kolektiboan debekua eta zenbait prozedura-berme, alde batera utzita pertsonak nazioarteko babesa eskatu nahi duela adierazi duen edo ez.

Testuinguru horretan, *non-refoulement* printzipioak ematen duen lehen mailako bermerik gabe, Estatu hartzailearen betebeharrak positiboa den heinean, indargabetu egiten da asilo-eskubidearen zentzua, eta, zehazki, errefuxiatuaren estatutu juridikoarena. Izan ere, jazarritako pertsonak babesteko lehen neurria da ez itzultzea jazarriak diren tokira, non haien oinarrizko eskubideak modu konponezinean urra daitezkeen. Horregatik, *non-refoulement* nazioarteko zuzenbidearen printzipio orokor bat da, eta hala izaten jarraitu behar du.

---

<sup>28</sup> ANDRADES GONZÁLEZ, Amanda; GANDARIAS GOIKOETXEA, Itziar; FERRI YÁNEZ, Ana; eta DE LUCAS LARREA, Beatriz. (2016). *Vidas que cruzan fronteras: un análisis feminista sobre la Frontera Sur*. 38. or.

<sup>29</sup> Espainiaren eta Marokoren arteko akordioa, pertsonen zirkulazioari, joan-etorriei eta legez kanpo sartutako atzerritarren onarpenari buruzkoa, 1992ko otsailaren 13koa.

<sup>30</sup> ANDRADES GONZÁLEZ, Amanda; GANDARIAS GOIKOETXEA, Itziar; FERRI YÁNEZ, Ana; eta DE LUCAS LARREA, Beatriz. (2016). “*Vidas que cruzan frontera...*” op. cit., 39. or.

<sup>31</sup> GEEA (Sala Nagusia), 2012ko otsailak 23, *Hirsi Jamaa y otros c. Italia* kasua. - Italiako agintariek Maltako kostatik 35 milatara geldiarazitako ontzi bateko bidaiariak itzuli zituzten Libiara. Italiako Gobernuak lurralde nazionalan sartzeko baimena ukatzearen babesean, kanporatzerik ez dagoela alegatzen du, ez baitziren muga nazionalak gurutzatu. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, ordea, uste du 4. Protokoloaren 4. artikulua urratu dela, ez baitzen bidaiarien egoera indibiduala aztertu, eta, beraz, kanporatze kolektiboa da. Gortearen ustez, Estatu bateko agintariak —botere publikoa egikaritzuz— mugak zeharkatzea eragozten duten Itsas zabalean egindako interzepzioetan, beren jurisdikzioaren egikaritzan ari dira, eta, beraz, Estatuaren erantzukizuna dakar.

Printzipio horrek beraz, Estatuak lotzen ditu, gainerako Estatuaren aurrean (*erga omnes*) eta eskatzailearen aurrean<sup>32</sup>.

#### **4. DUBLIN III ERREGELAMENDUA (604/2013 ERREGELAMENDUA)**

##### **4.1. ESTATU KIDE KONPETENTEA AUKERATZEKO IRIZPIDE ETA MEKANISMOAK**

Babes-eskaera bakoitza aztertzeke ardura duen Estatu zehaztea 1990eko Dublingo Hitzarmenaren arabera izango da. Horren aurretik 1985ean, Alemania, Belgika, Frantzia, Luxenburgo eta Herbehereen arteko Schengen Akordioa onartu zen<sup>33</sup>. Akordio horren ondorioz, Estatu horien artean ezabatu egin ziren barneko mugetan zeuden kontrolak, eta zirkulazio aserako sistema bat ezarri zen. Akordio horrek berebiziko garrantzia du Nazioarteko Babesaren arloan; izan ere, beren herrialdeetatik ihes egiten duten pertsona gehienak ez dira Akordioa sinatu duten Estatuetakoa, eta, beraz, mugako kontrolei aurre egin behar diete.

Dublingo Hitzarmena 1990eko ekainaren 15ean sinatu zuten Estatu kide guztiek, eta orduetik aurrera babes-eskaerak aztertzeke ardura zein Estatu izan behar duen zehazteke tresna arauemailea izango zen. Europako Erkidegoko Estatu kideak atxikitzeke irekitako hitzarmena izan arren, Norvegiak eta Islandiak Hitzarmena beren lurraldeetan aplikatzeko akordioak sinatu zituzten Europako Erkidegoarekin.

Hala, Dublingo Hitzarmena SECAren<sup>34</sup> barruko beste pieza bat da, hurrengoak dituelarik funtsezko helburutzat: pertsona batek bere aukerako herrialdean asiloa eska dezan saihestea (*asilum-shopping* deiturikoa), edota pertsona bat Europar Batasunean egotea saihestea, ezein herrialdek bere eskaera aztertzeke erantzukizuna hartzen ez duelako (*orbiting*

---

<sup>32</sup> SOLANES CORELLA, Ángeles. (2020). “Protección y principio de non-refoulement en la Unión Europea”. *SCIO Revista de Filosofía*, 19. 58. or.

<sup>33</sup> Schengen eremua, guztira, 27 herrialdek osatzen dute, Kroaziako duela gutxiko sarrera kontuan izanda. Herrialde batzuek, Hitzarmenekoak izanik, salbuespenak dituzte aplikazioan, eta ez dira Schengen eremukoak. Horren adibide dira Erresuma Batua, Irlanda, Bulgaria, Errumania eta Zipre. Beste Estatu batzuk, EBkoak izan gabe, Akordioari atxiki zaizkio, hala nola Islandia, Liechtenstein, Norvegia edo Suitza.

<sup>34</sup> Europako Asilo Sistema Erkidea (SECA gaztelaniazko siglengatik): Kontseilu Europarrak abiarazi zuen, eta, horren bidez, 1951ko Genevako Konbentzioaren aplikazio osoan oinarritutako sistema bat sortzeke lan egitea erabaki zen, 1967ko New Yorkeko Protokoloak eta ez itzultzeke printzipioak osaturik. SECA babes-eskaerak tratatzeko arau, prozedura eta epe komunak pakete batek osatzen du, eta gutxieneke harrera-baldintzak ezartzen ditu.

deiturikoa). Horretarako, Dublin sistemak oinarritzko hiru printzipio ezartzen ditu: 1) babes-eskatzailleek aukera bakarra dute EBean eskatzeko, eta, erantzuna ezezkoa bada, Estatu kide guztientzat izango da loteslea; 2) Dublinek ezarritako banaketa-irizpideak errespetatuko dira, eta ez eskatzaileen lehentasunak, honek zehazten baitu eskaera bakoitza aztertzeke ardura zein Estatu kidek hartu behar duen; eta 3) babes-eskatzailleak esleitu zaien Estatu kideari transferi dakizkioke. Proposamen hori praktikan jartzeak hainbat eragozpen sortu ditu, eta agerian utzi du lortu nahi den helburu formala ez dela izan errealitatean emandakoa<sup>35</sup>. Edonola ere, azter dezagun Erregelamenduaren araudia eta honen esparru praktikoa. Argitu beharra dago, Hitzarmena hainbat aldiz aldatu izan dela erregelamenduen bidez, zehazki Dublin II<sup>36</sup> eta Dublin III<sup>37</sup> izenekoak, azken hau delarik gaur egun indarrean dagoena.

Aipatutako erregelamenduaren 3. artikulua arabera, jazarpen edo bestelako kalte larritik ihes egin eta Europako lurraldera iristea lortzen duten pertsonak Europar Batasuneko Estatu bakar batean aurkeztu ahal izango dute babes-eskaera, eta Estatu horrek aztertu beharko du, erabakia loteslea izango delarik gainerakoentzat. Harrera Estatuaren zehaztapen hau, babes-eskaeraren azterketaren aurretik egiten da. Kontzeptua eskatzaile guztiei aplikatuko zaie, errefuxiatutzat hartzen diren kontuan hartu gabe. Dublingo Hitzarmena izango da babes-eskaera aztertzea zein Estaturi dagokion ezarriko duena, sarrera inguruabarren arabera, normalean EBra sartzeko igaro izan den Estatu izango delarik, betiere harrerako Estatu hau segurutzat jotzen bada. Hirugarren Estatu seguru bat badago, eskaera ez da aztertuko, eta eskatzailea Estatu horretara bidaliko da, izan ere, kasu horretan *non-refoulement* printzipioak ez du eraginik. Horrela, Estatuak hirugarren herrialde seguruaren kontzeptua aplikatu ahal izango dute soilik agintari eskudunek ziurtasuna dutenean nazioarteko babesaren eskatzaileak hirugarren herrialdean honako printzipio hauen arabera tratua jasoko duela, irizpideek bizitzaren edo askatasunaren aurkako mehatxurik ez jasotzeari erantzuten diotelarik: torturarik edo tratu anker edo apalesgarririk ez jasotzea, Estatuan babesa izatea itzulketaren aurrean, eta noski, nazioarteko babesa eskatzeko aukera egotea, Ginebrako Hitzarmenak jasotzen duenaren arabera<sup>38</sup>.

Ondorio horietarako, Europar Batasuneko 12 Estatu bakarrik zituzten Estatu seguruaren zerrenda propioak, Espainia ez zegoelarik horien artean. Agian hain kopuru urri horrek eta

<sup>35</sup> SOLANES CORELLA, Ángeles. (2020). "Protección y principio..." op. cit., 44-45. orr.

<sup>36</sup> Kontseiluaren 343/2003 Erregelamendua, 2003ko osatilarren 18koa (Dublin II)

<sup>37</sup> Europar Parlamentuaren 604/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 26koa (Dublin III)

<sup>38</sup> 2013/32/EB Zuzentarauaren 38. artikulua.

EBk "segurtasun" presuntzio hori erabili nahi izateak, asilo-prozedurei "objektibotasun" handiagoa emateko eta arintzeko, 2015ean eragin zuen Batzordeak, Migrazio Agendaren esparruan, Erregelamendu Proposamen bat bultzatzea EBn herrialde seguruen zerrenda komun bat biltzeko<sup>39</sup>.

Herrialde batean jazarpenik dagoen baloratzeko, Estatu kideen arteko informazio-trukea ezartzen da, aldez aurretiko errefuxiatuen kopuruak eta errekonozimendu-indizeak, Giza Eskubideak betetzea, erakunde demokratikoak egotea eta Estatu horren egonkortasuna aztertuz besteak beste. Beraz, Estatuak segurutzat jotzen bada, eskaera funtsik gabekotzat joko da.

Edonola ere, praktikan ikus daitekeenez, mekanismo hori erabiltzen da baita herrialdeek segurutzat hartzeko gutxieneko baldintzak argi eta garbi betetzen ez dituztenean ere. Horregatik guztiagatik, kontzeptu hori erabiltzea gehiago uler daiteke Europar Batasuneko Estatu kideetan sartzen direnak kontrolatzeko, ikuskatzeko eta hautatzeko mekanismo gisa, errefuxiatuak babesteko modu gisa baino<sup>40</sup>.

#### **4.2. ERREGELAMENDUAK PAIRATZEN DITUEN ARAZOAK**

Sortu diren arazoen artean, hainbat aipa daitezke, adibide gisa. Lehenik eta behin, Dublingo sistema ez da bidezkoa; izan ere, iristen den lehen herrialdean erregistratzeak esan nahi du ezin dela nazioarteko babesik eskatu beste Estatu kide batean, edo, hala eginez gero, berriz lehen Estatu horretara transferitua izateko arriskua dagoela. Erantzukizuna beraz, mugako herrialdeek dute, neurritz kanpoko dena.

Bigarrenik, ez da eraginkorra, eskatzaileek ez baitute nazioarteko babesik eskatzen helmugako herrialdean, edo, hala egin bazuten, beste leku batean errepikatzen dute, Dublingo erantzukizuna esleitzeko irizpideak ez datozelako bat eskatzaileen lehentasunekin. Ihes egitearren, ez du esan nahi, ez zaienik axola nora doazen, eta inoiz ez dira kontuan hartzen norberaren lehentasunak. Gainera, erantzukizuna esleitzeko irizpideak oso modu desberdinean aplikatzen dira, adibidez, familiako kideen presentzia kontuan hartu gabe, klausula

---

<sup>39</sup> BERTOMEU NAVARRO, Andrea. (2021). *Reconocimiento y tutela del principio de non-refoulement en el derecho de la Unión Europea*. Aranzadi. 214. or.

<sup>40</sup> SOLANES CORELLA, Ángeles. (2020). "Protección y principio..." op. cit., 44. or.

humanitarioa oso modu murriztailean aplikatuz eta iritsitako lehen herrialdea irizpide nagusi gisa erabiliz<sup>41</sup>.

Hirugarrenik, Dublin sistemak urratu egiten ditu errefuxiatuen eskubideak; izan ere, Estatu kide guztietan ez dago bermatuta babes-eskaeren azterketa zuzen eta eraginkorra. Honen adibide garbia Belgika eta Greziaren aurkako auzia izan zen, aurrerago ikusiko dugun bezala GEEA eta EBJAren talka eragin zuena.

Azkenik, sistema hau ekonomikoki garestia da, funtzionatzeko erabiltzen dituen sistema guztiengatik, errefuxiatutzat hartzen direnen atxiloketa eta itzulerarekin lotutako gastuengatik, eta transferentzia-eskaerekin lotutako prozedurengatik.

### **4.3. ERREGELAMENDUAREN ERAGINKORTASUN ERREALA**

Agerian geratu da Erregelamenduaren funtzionamendua berrikusi beharra dagoela, erreforma eraginkorragoa izan dadin; adibidez, immigrazio irregularraren ibilbideak Estatu jakin batzuen kanpo-mugetan kontzentratu direlako, eta presio hori dela eta, zenbait Estatu kide ez dira gai izan beren mugak kontrolatzeko, Grezia eta Italia besteak beste. Horrek ziurgabetasun-espinal bat eragin du, asilo-sistemak kolapsatu zaizkien Estatu kideek elkartasun-falta argudiatzea eragin duena.

Lehen aipatu dugun bezala, EBJAk eta GEEAk segurutzat jotzen ez diren hirugarren herrialdeetara ez itzultzeko beharra errespetatzeko eskatu dute, printzipio hori loteslea dela azpimarratuz eta, aldi berean, Estatu kideen arteko birbidalketetan babes-eskatzaileen eskubideak bermatzeko eskakizuna azpimarratuz. "Dublingo Sistemaren parte hartzen duten Estatuak, Estatu segurutzat hartzen dira, horiek guztiak 1951ko Genevako Konbentzioaren, GEEHren eta EBOEGren parte baitira. Hala ere, GEEAren eta EBJAren nazioarteko babesaren eskatzaileen transferentziari buruz ebatzitako gaiak aztertuz gero, arrazoiketa-desberdintasun zuzenak ikus daitezke.

Ildo horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, 2011ko urtarrilaren 21eko Belgikaren auzian, erabaki zuen Dublingo sistema aplikatuz Belgikatik Greziara nazioarteko babesaren eskatzaile bat lekualdatzearen ondorioak GEEH 3. artikuluko tratu anker edo

---

<sup>41</sup> "Klausula humanitarioak" aukera ematen dio Dublingo Erregelamenduaren arabera erantzule ez den Estatu kideari babes-eskaera bat bere gain hartzeko, familia-unitate bateko kideak berriz elkartzeko, edo mendekotasun-arrazoientatik, sistemaren irizpideek ezartzen dutenetik kanpo. Hala ere, errealitatean oso gutxitan aplikatzen dira familiaren inguruan hitz egiten duten 10 eta 11 artikulukoak, izan ere, "familia" kontzeptuaren definizio oso estua egiten da.

apalesgarrik ez jasateko eskubidearen aurkakoak zirela, demandatzaileak jasan behar izan zituen atxiloketa- eta existentzia-baldintzengatik. Alegia, GEEAk erabaki zuen Belgikak banan-banan aztertu behar zituela errekurtsogileen inguruabar partikularrak, eta, horrez gain, jakin behar zuela nola aplikatzen zuten praktikan Greziako agintariek nazioarteko babesaren arloko legeria, eta beraz, Greziak bere betebeharrak bete ezin zituela jakinda Dublin Erregelamendua aplikatzeagatik kondenatu zuen. Auzitegiaren arabera, Estatua segurua dela egiaztatzeko azterketa sakona egitea ezinbestekoa da. EBJAren 2011ko abenduaren 21eko epaiak, Dublingo Sistemako elementu batzuk interpretatzeko irizpide berriak ezarri zituen, eta herrialde seguruaren kontzeptuari buruz esandakoa berretsi zuen<sup>42</sup>.

Epai horren ondorioz, Greziarako lekualdatzeak eten egin ziren, eta Dublin III Erregelamenduaren 3.2 artikulua aldatu zen<sup>43</sup>. Hala ere, agerian geratu ziren bi auzitegien iritzi kontrajarriak. GEEAk egoera bakoitza banan banan aztertu behar dela dioen bitartean, EBJA, elkarrekiko konfidantzaren printzipioari eutsiz ulertzen du, akats sistemikoak ematen direnean salbu, Estuak seguruak direla. GEEAk 2014an<sup>44</sup> berriz azpimarratu zuen ordura arte esandakoa, akats sistemikoak soilik segurtasun printzipio hori apurtzearen ideia baztertuz, eta kasu partikular bakoitzaren azterketa egiteko beharra mahaigaineratuz<sup>45</sup>.

Laburtuz, elkartasun faltaren ondorioz, Estatu kide batzuen asilo-sistema kolapsatu egin da, eta Dublingo sistema ez da guztiz eraginkorra<sup>46</sup>. Gainera, EBak nahiz eta erantzun praktikoa eta zuzen bat emateko tresna izan, aldi baterako babesaren figuraren bidez, ez da orain arteko inbasio errusiarrak gauzatzeko ihesaldi masiboa eman arte aplikatu, orain arteko Estatu kideen etengabeko ezezkoak eraginda. Figura hori erabili beharrean, EBk 2015eko *errefuxiatuen krisiari* erantzun bat emateko nahiarekin, Dublingo Erregelamenduari mekanismo osagarri batzuk sartzea erabaki zuen, mugako herrialdeetan dagoen neurritz

---

<sup>42</sup> EBJA, 2011ko abenduak 21, *Asunto N.S. y Otros*, C411/10 eta C493/10.

<sup>43</sup> Dublin II Erregelamenduak 3.2. artikuluan ziona zen edozein Estatu kidek aztertu ahal izango zuela hirugarren herrialde bateko nazional batek aurkeztutako babes-eskaera bat, Erregelamenduaren arabera azterketa hori ez dagokionean ere, kasu horretan beraz, Estatu kide hori bihurtuko zen Estatu kide erantzulea. Honi *subiranotasun-klausula* deritzo. Dublin III Erregelamenduak ondoren artikulua hori modifikatu zuen. Honen arabera, Estatu kide arduraduna zein den zehazterik ez badago, erregelamendu horrek ezartzen du nazioarteko babes-eskaera aurkeztu duen lehen Estatua izango dela erantzulea. Eta, zehazterik egonda ere, teoriarantzule den lehen Estatu kidea segurua ez denean, hori zehazteko ardura duen bigarren Estatu kideak izango du kasua aztertze erantzukizuna.

<sup>44</sup> GEEA, 2014ko azaroak 4, *Tarakhel c. Suiza*, 29217/12.

<sup>45</sup> BERTOMEU NAVARRO, Andrea. (2021). "*Reconocimiento y tutela...*" op. cit., 222-231 orr.

<sup>46</sup> Ikus.: DE LUCAS, Francisco Javier; MARÍN, Luisa; ORDÓÑEZ, David; SOBOTOVICOVA, Simona; GONZÁLEZ, Javier; BERTOMEU, Andrea; GOMEZ, Itziar; PÉREZ, Maria Carmen; LA SPINA, Encarnación; BENITO, Leyre; HERNÁNDEZ, Juan; BARBERO, Iker; BÁRCENA, Patricia; BENGOTXEA, Joxerramon. (2016). *Pertsona errefuxiatuen krisia eta bere eragina Europar Batasunean*. Eurobasque. 75-79. orr.

kanpoko zamari aurre egiteko. Europar Batasuneko Kontseiluaren erabakia<sup>47</sup> gainerako Estatu kideetan errefuxiatuak birkokatzeke sistema abian jartzea izan zen. Neurria hasiera batean erakargarria zirudien arren, gutxien eragindako herrialdeek arbuiatu eta erreparoz hartu zuten erabakia. Testuinguru horretan, Eslovakiak eta Hungariak erabakiaren aurka bozkatu zuten, hura deuseztatzeko eskatuz. Erantzun gisa, EBJAk ezetsi egin zituen bi herrialde horiek aurkeztutako errekursoak, EBFTren 78.3 artikulua mahaigaineratuz<sup>48</sup>: *“hirugarren herrialdeetako herritarrak ustekabeen etorri direla-eta, Estatu kide bat edo batzuk larritasun-egoeran badaude, Kontseiluak Estatu kide horiei laguntzeko behinbehineko neurriak hartu ahal izango ditu, Batzordeak proposaturik. Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du Kontseiluak”*. Era berean, nabarmendu behar da Auzitegi Gorenaren 2018ko uztailaren 9ko epaia, zeinaren bidez Espainia kondenatu baitzen aurreko erabakiaren ondorioz esleitu zitzaion errefuxiatu-kuota ez betetzeagatik<sup>49</sup>. Kontseilu Europarraren erabakia 19.449 errefuxiatuaren kuota esleitu zion Espainiari, eta horietatik %12,85 baino ez zituen izapidetu<sup>50</sup>.

Edonola ere, EBk mekanismo osagarriak sartu behar izateak agerian uzten du Dublín III Erregelamenduak ez duela behar bezala funtzionatzen. Neurri handi batean, zaila da ukatzea Dublingo sistemaren xedapenek eta mekanismoek Estatu kideen ez-betetzea sustatzen dutela. Horregatik azpimarratu dira behin eta berriz Dublingo oinarrizko araudiari buruz proposatu diren hainbat erreforma eta eztabaida, horiek aurrera ateratzea eragozten direlarik, nahiz eta praktikan, eta hasieratik, agerian geratu den aldaketak ezinbestekoak direla babes-eskatzaileen babes handiagoa eta hobe lortzeko.

Orain arte, EBk nahiago izan du immigrazioaren jatorrizko herrialdeekin akordioak sinatzea, besteak beste EB-Turkia Akordioa, eta "hirugarren herrialde segurua" bezalako kontzeptuez baliatzea, nahiz eta honek Giza Eskubideen urraketa zuzena eragin.

---

<sup>47</sup> EBko Kontseiluaren 2015/1601 Erabakia, 2015eko irailaren 22koa, Italia eta Greziaren onurarako nazioarteko babesaren eremuan behin-behineko neurriak ezartzen dituen erabakia.

<sup>48</sup> EBJA, 2017ko irailak 6, *Slovak Republic and Hungary v Council of the European Union*, C-643/15 eta C-647/15 gai metatuak.

<sup>49</sup> AG (Administrazioarekiko Auzien Sala, 5. sekzioa). 2018ko uztailak 9. 1.168/2018 epaia.

<sup>50</sup> CAMPUZANO, Casilda. (2019). *El derecho de asilo en la Unión Europea: el Reglamento de Dublín y su reforma*. Comillaseko Unibertsitate Pontifizea. 27. or.



## 5. ASILORAKO ALTERNATIBAK

### 5.1. NAZIOARTEKO BABESAREN INSTRUMENTUAK

Nazioarteko babesaz hitz egiten dugunean, jakin beharra dago ez dela soilik asilora mugatzen. Alegia, asiloa, nolabait esateko, eskura daitekeen gehieneko babesa bada ere, badira beste estatutu batzuk asilo-eskubidea duten pertsonen deskribapenean sartzen ez diren baina babesa behar dutenentzat pentsatuak, egoera ahulean daudela ulertzen delako. Figura hauek aldi baterako babesa eta babes subsidiarioa dira, eta beraz hauek aitortzean ere nazioarteko babesaz hitz egiten ari gara. Babesaren irismena oso antzekoa da hiru estatuetan, eta aldaketak oso txikiak dira, hala ere, legeak babes-mota hauek era ezberdinean sailkatzen ditu.

Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa urriaren 30eko 12/2009 Legean arautzen dira. Aldi baterako babesa berriz, figura ezezagunagoa da, nahiz eta legeak aurretiaz jaso urriaren 24ko 1325/2003 Errege Dekretuan<sup>51</sup>, praktikoki ez delako orain arte erabili. Figura bakoitza aplikagarria da inguruabar ezberdin batean, azter dezagun zein eskakizun edo interes dauden horren atzetik.

**Asilo-eskubidea**, aurreko puntuetan azaldu den bezala, pertsona orok bere herrialdetik kanpo babesa bilatzeko duen eskubidea da, bere arraza, erlijio, nazionalitate, iritzi politiko, edota talde jakin bateko kide izateagatik bizia arriskuan jartzen duen gatazka edo jazarpen baten ondorioz ihes egiten duenean. Hau da, pertsonak beldur sendoak dituenen. Lan honetan zehar esan dugun bezala, asilo-eskubidea Giza Eskubide bat da, Europako esparru juridikoan ez ezik, 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean ere jasota dagoena, 1951ko Genevako Konbentzioan eta 1967ko New Yorkeko Protokoloan garatua<sup>52</sup>.

**Babes subsidiarioaren** kontzeptua bestalde, ez da nazioarteko inongo itunetan onartzen, baizik eta Europar Batasunaren esparruan sortzen da. Bertan, Genevako 1951eko Definizioaren errefuxiatu definizioa zabaltzea erabaki zen, nazioarteko babeserako beste

---

<sup>51</sup> 1325/2003 Errege Dekretua, urriaren 24koa, lekualdatutako pertsona asko bertaratzen direnerako aldi baterako babes-araubideari buruzko Erregelamendua onartzen duena.

<sup>52</sup> Asilo-eskubideak asiloa bilatzeko saiakerari egiten dio erreferentzia, eta ez benetako eta eraginkorra den babes baterako eskubideari, izan ere, puntu honetan zehar ikusiko dugun bezala nazioarteko babesak asiloa ez den beste era batzuetako babesak aurreikusten ditu.

estatutu bat sortuz<sup>53</sup>. Azken hau aitortzen zaie asiloa lortzeko edo errefuxiatuak izateko baldintzak betetzen ez dituzten baina babes behar duten pertsonen, beren herrialdera itzuliz gero kalteren bat jasan dezaketela pentsatzeko arrazoiak daudelako<sup>54</sup>. Legeak jasotzen dituen kalteen artean ditugu nazioarteko edo barneko gatazka-egoeretan bereizketarik egin gabeko indarkeriak eragindako zibilen bizitzaren edo osotasunaren aurkako mehatxu larriak<sup>55</sup>. Hauek ez dira indibidualizatuak izan behar, hori baita babes subsidiarioaren ezaugarrietako bat. ACNURen ustez, bereizketarik gabeko edo indarkeria orokortu terminoek objektu edo gizabanako jakin bati zuzendu gabeko indarra erabiltzea esan nahi dute<sup>56</sup>. ACCEMen datuen arabera, 2021eko lehen seihilekoan nazioarteko babes-figuraren bat ematearen aldeko 3.421 ebazpen eman ziren. 2.495 errefuxiaturi eman zitzaizen errefuxiatuaren estatutua, eta 926 pertsonari babes subsidiarioa.

Orain arte Espainiar Estatuan erabili ez den nazioarteko babesaren hirugarren figura **aldi baterako babes** da. EBk estatutu hori aurreikusi eta arautu zuen Kontseiluaren 2001eko uztailaren 20ko 2001/55/EE Zuzentarauaren bidez. Mendebaldeko Balkanetako gatazka armatuen ondorioz Europar izandako lekualdatze masiboen ondoren onartu zen, bereziki Bosnia eta Herzegovina eta Kosovotik heldutakoak<sup>57</sup>. Errefuxiatu terminoan oinarrituta, babes bereziko estatutu bat, printzipioz behin-behinekoa, aitortzeko aukera ematen hasi zen. Alegia, Zuzentarauaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, salbuespeneko prozedura bat da, zeinak, hirugarren Estatuetatik lekualdatutako pertsonen joan-etorri masiboari erantzun nahi dion, berehala eta aldi baterako babes bermatuz<sup>58</sup>.

---

<sup>53</sup> TORRES, Ana Maria; ALARCÓN, Noemi; eta BÁRCENA, Patricia. (2017). *La Protección Internacional de los solicitantes de asilo; guía práctica para la abogacía*. 15. or.

<sup>54</sup> ACNUR (2022ko apirilak 20). *Derecho de asilo y protección subsidiaria: relación entre los conceptos*. [https://eacnur.org/blog/que-relacion-tienen-el-derecho-de-asilo-y-la-proteccion-subsidiaria/?tc\\_alt=47342](https://eacnur.org/blog/que-relacion-tienen-el-derecho-de-asilo-y-la-proteccion-subsidiaria/?tc_alt=47342)

<sup>55</sup> 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen. 10. artikulua: “Lege honen 4. artikuluan aurreikusitako babes subsidiarioa eragiten duten kalte larriak dira: a) heriotza-zigorren kondena edo ejekuzio materialaren arriskua; b) eskatzailearen jatorrizko herrialdeko tortura eta tratu anker edo iraingarriak; c) zibilen bizitzaren edo osotasunaren aurkako mehatxu larriak, nazioarteko edo barneko gatazka-egoeretan bereizi gabeko indarkeriak eragindakoak.” (Itzulpen propioa, autoreak egina).

<sup>56</sup> ACNUR. *Declaración del ACNUR sobre la protección subsidiaria a personas amenazadas por violencia indiscriminada, bajo la Directiva de Reconocimiento del Consejo de Europa*. <https://www.refworld.org/es/pdfid/5d7fbfa42.pdf>

<sup>57</sup> Kontseilua (EBko Kontseilua eta Europar Kontseilua). (2023ko urtarrilak 17). *Protección temporal de la UE para las personas desplazadas*.

<https://www.consilium.europa.eu/es/infographics/temporary-protection-displaced-persons/>

<sup>58</sup> 2001eko uztailaren 20ko 2001/55/EE Zuzentarauaren 2. artikulua: “Zuzentaru honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan: a) Aldi baterako babes: salbuespeneko prozedura bat da, zeinaren bidez, hirugarren herrialdeetatik datozen eta berriz ere jatorrizko herrialdera sartu ezin diren lekualdatutako pertsonak masiboki bertaratzen badira edo berehala bertaratzen badira, berehalako eta aldi baterako babes bermatzen baitzaie pertsona horiei, bereziki asilo-sistemak bere funtzionamendu onaren, eragindako pertsonen eta babes

Garrantzitsua da argitzea nazioarteko babesaren eta aldi baterako babesaren ez direla gauza bera, azken hau berehalako eta aldi baterako arreta eskaintzen duen estatutua baita, baina ez da bateraezina nazioarteko babes-eskaerarekin. Hau da, aldi baterako babesaren onuradunek nazioarteko babesaren eskaeratik eratorritako onurak aldi berean<sup>59</sup>. Figura hori beraz, egoera bat aldi baterako arintzeko diseinatuta dago, lekualdatze masiboen kasuan asilo-sistema egoera guztiei erantzuteko gai izango ez zelaren beldurraren pean. Aldi baterako babesari esker, gatazkaren ondorioz lekualdatutako pertsonen automatikoki Europar Batasunean bizi, lan egin edo ikasi ahal izango dute urtebeteko epean, epe hori automatikoki luzatuko delarik hura amaitzen denean, eta, salbuespen gisa, hirugarren batera zabaldu ahal izango da, asiloa eskatu beharrik izan gabe. Automatikotasun hori da figuraren ezaugarri nagusia, babesaren eta honek dakartzan eskubideak 24 ordutan aitortzen baitira.

Espainiako Estatuan berariazko erregelamendu baten bidez arautzen da (2003ko urriaren 24ko Errege Dekretua), baina praktikan, nahiz eta indarrean jarri zenetik oso egoera larriak gertatu diren, Espainian ez da orain arte inoiz aktibatua. Ez Irakeko gerrako errefuxiatuen exodoa eman zenean, non Espainiako Gobernuak Estatu Batuetako esku-hartze militarra babestu zuen, ez Siriatik etorritako emakume eta gizonen ihes masiboan, edota Afrikako iparraldeko arabiar errebolten errepresiotik ihes egiten zuten pertsonen kasuan.

2022ko martxoan, ordea, aldi baterako babesaren figura argitara atera da, Ukrainako gerra larriagotu eta berehala<sup>60</sup>. Gure buruari galdetu behar diogu zer interes dauden figura hori aplikatzearen atzean, eta zer arrazoi alega daitezkeen orain arte aplikatu ez izana justifikatzeko. Ezerk ez du azaltzen Ukrainatik datozen edo Maliko gatazka armatutik datozen pertsonen babes aitortpenaren arteko aldea, azken hauek urte luzez luza daitezkeen

---

eskatzen duten gainerako pertsonen interesaren aurkako efekturik gabeko pertsonen fluxu hori kudeatu ezin izateko arriskua badu.” (Itzulpen propioa, autoreak egina).

<sup>59</sup> OAR. (2022ko martxoa). *Información sobre Protección Temporal Ucrania*. [https://www.interior.gob.es/opencms/pdf/2022/Ucrania-Proteccion-Temporal/MININT\\_Prot\\_Temp\\_UCR\\_07.-v2.pdf](https://www.interior.gob.es/opencms/pdf/2022/Ucrania-Proteccion-Temporal/MININT_Prot_Temp_UCR_07.-v2.pdf)

<sup>60</sup> Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazka aspaldikoa da: 2013an, Ukraina eta EBren arteko akordio politiko eta komertzial historiko batek Errusiarekiko harremanak tenkatu zituen. EBrekiko negoziazioak bertan behera geratu ziren, eta horrek "Euromaidan" izeneko protestak eragin zituen. Krisia bortitz bihurtu zen 2014ko martxoan, Errusiak Krimea anexionatu zuenean. Hilabete batzuk geroago, Donbas eskualdean altxatu ziren, Ukraina ekialdean, eta gerra zibil bat hasi zen Ukrainako gobernuaren eta Donetskoko eta Luhanskeko herri-errepublikaren artean, Errusiak lagunduta, zortzi urte beranduago, otsailean lurralde hauen independentzia onartu zuenak.

prozesuetatik igaro behar baitute. Alegia, aurretiaz beste jatorrizko Estatu batzuen lekualdatze masiboei erantzuteko tresnak izan arren, ez da bidea hainbeste *erraztu* nahi izan, eta horrek beste behin erakusten du interes politikoak Giza Eskubideen gainetik daudela.

## 5.2. ARRAZOI HUMANITARIOAK

Arrazoi humanitarioengatik babesaz ari garenean, Espainiako Atzerritarren Erregimen Orokorrak jasotzen duen salbuespenezko egoeren ondoriozko baimenari buruz ari gara, zehazki, 4/2000 Lege Organikoa garatzen duen 557/2011 Erregelamenduaren 126. artikuluari buruz.

Ez da teknikoki nazioarteko babesaren hirugarren arrazoi bat, baizik eta aukera bat (gerta daitekeena edo ez). Baimen honen helburua da arriskuan dauden pertsonen laguntza ematea, bai jatorrizko herrialdeko gatazkengatik, bai herrialde horretara itzuliz gero oinarrizko eskubideak urraturik izango dituztelako. Beraz, salbuespenezko zirkunstantziengatik aldi baterako bizileku-baimena da. Arazoa da araudiak zehaztutako arrazoi humanitarioez hitz egiten duela, eta horrek interpretazio-tarte txikia uzten du. Hau da, ezin da edozein egoera arrazoi humanitariotzat hartu egoitza horren alde egiteko, legeriak jasotzen dituen arrazoiengatik soilik baizik. Kasu horietako bat da eskatzaileak egiaztatzea langileen eskubideen aurkako delitu baten biktima dela. Era berean, familia-ingurunean indarkeriazko jokabideengatik delituen biktimatzat jotzen denak ere eskatu ahalko du. Baimen hori eskatu ahal izango dute, halaber, gerora sortutako gaixotasun larriren bat izan eta osasun-laguntza espezializatua behar duten pertsonen, baldin eta laguntza hori ezin bada jatorrizko herrialdean jaso eta horrek bere bizitza arrisku larrian jartzen badu. Azkenik, arrazoi humanitarioengatik bizilekua eskatu ahal izango da baldin eta jatorrizko herrialdera itzuliz gero, bere edo bere familiaren segurtasuna arriskuan jartzen badu.

Venezuelako pertsonak babes mota horren adibide garbia dira. Herrialdeak bizi duen krisi ekonomiko, politiko eta sozial larriak sorterritik emigratu nahi duten pertsonen kopurua handitzea eragin du. Askotan, nazioarteko babesa eskatzen duten arren, hau ukatzen diete, baina ebazpen horretan bertan ematen zaie bizilekua arrazoi humanitarioengatik urtebetez, hau luza daitekelerik. ACCEMen 2021eko lehen sehirekoko datuen arabera, Venezuelako

nazionalitatea duten pertsonak izan ziren alternatiba horren onuradun kasuen %99a<sup>61</sup>. Beste behin ere, interes politikoen aurrean gaude; izan ere, Espainiako Estatuak koherentzia mantendu behar du egungo gobernuak Venezuelako herritarren eskubide demokratikoak urratzen dituela dioen ideiarene eta herrialde horretatik ihes egitea erabakitzen duten herritarrei ematen dien babesaren artean<sup>62</sup>.

## 6. ASILO ESKAERAREN PROZESUA

### 6.1. ASILO ESKUBIDEA ESPAINIAN

Errefuxiatu bat Espainiar Estatura iristen denean nazioarteko babesaren bila, asiloa eskatu behar du Barne Ministerioari atxikitako Asilo eta Babes Bulegoan (OAR), kasua azter dezan. Hala ere, beste honako leku hauetako edozeinetan egin dezakete eskaera: mugako postuetan, bai nazioarteko portu bai aireportuetan; atzerritarren bulegoetan; baimendutako polizia-etxeetan; edo, atzerritarrak barneratzeko zentroetan (CIE) egonez gero, zentroko zuzendaritzari jakinarazi beharko diote, eskaera dagokion polizia-etxera helaraz dezan<sup>63</sup>.

Prozedura aldatu egiten da eskatzailea dagoen lekuaren arabera, dela Estatuko lurraldearen barruan, dela haren mugan, dela CIE batean. Alderik handiena izapidetzea onartzeko edo ez onartzeko fasean gertatzen da; izan ere, eskaera mugan egiten bada, eskatzailea teorikoki bere egonaldiako egokitutako zentru batzuetan konfinatuta egongo da. Izapidetzea onartzeko fasea, beraz, 4 egunekoa da, eta ez hilabetekoa, lurraldean hasitako prozedura bezala.

Lurraldeko prozedurari dagokionez, eskaera idatziz egingo da, Espainiako Estatuan sartzen denetik hilabeteko epean, nahiz eta praktikoki epe hau gomendapen bat besterik ez da, askotan babes-eskatzaileak direnak heldu eta hainbat hilabete beranduago jakiten dutelako babesa galdatzeko eskubidearen inguruan. Babes-eskatzaileek interprete baten laguntza eduki ahal izango dute, beharrezkoa izanez gero, baita laguntza juridikoa eta laguntza medikoa ere. Indarrean dagoen kanporatze-izapide oro eten egingo da izapideak egiten diren bitartean.

<sup>61</sup> ACCEM. (2022ko apirilak 20). *Datos refugiados 2021: se duplicó la tasa de reconocimiento de protección internacional pero también aumentaron las denegaciones*. <https://www.accem.es/tag/razones-humanitarias/>

<sup>62</sup> Espainia 2019an hasi zen arrazoi humanitarioengatik babesa ematen Venezuelatik eratoritzen ziren babes-eskatzaileei, Guaido presidente gisa errekonozitu zuen urte berean.

<sup>63</sup> ACNUR (2022ko apiriak 20). *Información sobre protección internacional y asilo en España*. [https://eacnur.org/blog/proteccion-internacional-espana-y-asilo-tc\\_alt45664n\\_o\\_pstn\\_o\\_pst/?tc\\_alt=47342](https://eacnur.org/blog/proteccion-internacional-espana-y-asilo-tc_alt45664n_o_pstn_o_pst/?tc_alt=47342)

OAREk asilo-eskaerak jasotzen ditu eta azterketa sakona egitea merezi duten ala ez erabakitzen du. Ebazpena emateko epea hilabetekoa da, eskaera aurkeztu zenetik zenbatzen hasita. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, administrazio-isiltasun positiboak eragiten du, eta, beraz, eskaera izapidetzeko onartu dela ulertuko da. Izapidetzeko ez onartzea kasu hauengatik argudiatu ahalko da: Espainiako Estatu ez denean eskaera ebazteko herrialde eskuduna, edota eskatzailea segurutzat jotzen den hirugarren Estatu batetik datorrenean, edo EBko Estatu kide bateko nazionala denean<sup>64</sup>. Izapidetzeko onartu ondoren, aldi bat irekitzen da funtsa aztertzeko, hau da, espedientea izapidetzeko epea hasten da, eta eskatzaileari identifikazio-dokumentuak eta lan egiteko baimena ematen zaizkio, azken hau eskaera datatik 6 hilabetetara<sup>65</sup>.

Kasua aztertu ondoren, eskaera ukatu egin daiteke, edo asiloa eman. Edonola ere, legearen arabera, 6 hilabeteko epean eman behar da ebazpena, nahiz eta praktikan hau ez den betetzen, urtez luzatu daitezkeen prozedurak izan baitaitezke<sup>66</sup>. Espedienteen instrukzioa amaitu ondoren, OAREk Asilo eta Babeseko Ministerio arteko Batzordeari helaraziko dio erabakia, aldi berean honek aztertu eta Barne Arazoetako ministroari proposamena helaraziz. Azken horrek izango du azken hitza, alegia honi dagokio ebazpena emateko eskumena; asilo-eskubidea edo babes subsidiarioa eman edo ukatzeko.

Ebazpena aldekoa bada, hau da, Errefuxiatuaren Estatutua ematen bada, pertsonak babes-maila handia eta harrera-herrialdean integrazteko eskubideak ditu, eta honako eskubide hauek bermatzen ditu: itzultzearen aurkako babesa, Espainiako Estatuan lan egiteko eta bizitzeko baimena, identifikazio- eta bidaia-dokumentuak, integrazio-programetarako sarbidea eta familia-unitatearen mantentzea. Aldiz, ez onartzeko edo ukatzeko ebazpena jasotzen bada, pertsona irregulartasun-egoeran geratuko da, salbu eta Espainiako Estatuan duen egoera Atzerritarren Araubide Orokorren bidez erregulariza dezakeenean, dela arrazoi

---

<sup>64</sup> CEAR. (2006). “*Desplazamientos forzados...*” op. cit., 34-37.or.

<sup>65</sup> Harrera Zuzentarauaren 15. artikulua aurreikusten du Estatuak lan-baimena eman behar dietela babes-eskatzaileei eskaera egin eta 9 hilabete igaro ondoren (Estatuak baldintzak hobetu ditzakete, epea murriztuz). Hala ere, Espainiako araudia xedapen horiek baino lehenagokoa da, eta beraz, 2009ko Asilo Legeak jasotzen du lan egiteko baimena izango dutela erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, aldi berean, Asilo Erregelamenduak atzerritartasunari buruz indarrean dagoen araudira (557/2011 Errege Dekretua) bideratzen gaitu, zeinaren arabera, eskatzaileek lan egiteko baimena izango dute eskaera datatik 6 hilabetera.

<sup>66</sup> 12/2009 Legearen 45.7.art.: “Prozedura horietan emandako ebazpenak jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, interesdunak eskaera aurkezten duenetik edo etete edo errebokatzeko prozedura hasteko erabakia jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Epe hori amaituta, eta aplikatzekoak diren eteteak edo luzapenak kontuan hartuta, espedientea iraungiztat joko da, eta ofizioz artxibatuko da.” (hau errealitatean ez da ematen, ez gehiengo 6 hilabeteko epea, ezta epea igarota espedienteen artxibapena ere). (Artikuluaren itzulpen propioa, autoreak egina).

humanitarioengatik babesa eman zaiolako, dela lan-sustraiagatik, zeinaren bidez lortu baitaiteke bizileku- eta lan-baimena, 2 urteko bizileku-baimeneko epean gutxienez 6 hilabetez lan eginda, edo legeak aurreikusten duen beste edozein arrazoi dela eta. Hala ez bada, nahitaez irteteko, itzultzeko edo herrialdetik kanporatzeko agindua jasoko du. Agindu horrek, kasu askotan, CIE batean atxilotzeko edo bizitza arriskuan duen herrialde batera kanporatzeko arriskuan utziko du pertsona.

Gogoan izan behar da 2013/32/EB Zuzentarauaren arabera, Estatuak nahitaez eman behar dietela baimena nazioarteko babesa eskatzen dutenei beren lurraldean jarrai dezaten, harik eta errekurtsio eraginkor bat aurkezteko epea amaitu arte edota eskubide hori epearen barruan baliatu denean, errekurtsioaren emaitza izan arte. Hau da, legeak bi aukera aurreikusten ditu erabakia errekurritzeko, ezingo delarik eskatzailea kanporatu errekurtsioa ebatzi arte. Berraztertze-errekurtsioa jartzea da horietako aukera bat, erabiliena dena eta hilabeteko epean eskatu beharra dagoena. Bigarren aukera, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea izango litzateke, bi hilabeteko epean egin behar dena. Bigarren hau berraztertze-errekurtsioaren ondoren ere jar daiteke, baina ez alderantziz. Errekurtsioa jarri zenetik urtebete igarota, erantzunik jaso ez bada, ukatutzat joko da, eta bide judizialek joan ezean, asiloaren bidea amaitutzat emango da. Hau da, urtebete igarota, eskatzaile gisa jasotzen den lan-baimena eta egoitza-baimena amaitu egingo lirateke.

Nazioarteko babesaren eskatzaile batek ukapen bat jasotzen duenean eta haren aurka errekurtsio bat jartzen duenean, eskubidea du Espainian jarraitzeko, babes-eskatzaile gisa dokumentatuta jarraitzeko eta errekurtsio hori izapidetzen den bitartean lan egiteko, izan ere, babes-eskatzaile izaten jarraitzen duela kontsideratzen da. Hala ere, praktikan ez dira guztiz errespetatzen eskubide horiek. Espainiako Administrazioak asilo-ukapen bat jakinarazten duenean, lan-baimena frogatzen duen dokumentazioa erretiratzen du, herrialdetik gehienez ere hamabost eguneko epean irteteko aginduarekin batera. Eskatzaileak errekurtsioa jarri arren, neurri horien etetea ez da automatikoa, eta ez zaio dokumentatzen, ezta lan-baimena aitortzen ere ez. Praktikan, berraztertze-errekurtsioa aurkeztean, aurretik jasotako ezezko ebazpenaren eraginkortasuna etetea eska daiteke neurri kautelarren bitartez. Ebazpen hori espresuki ebatzi behar du OAREk 30 eguneko epean, eta isiltasuna positiboa izango da epe hori betetzen ez bada. Hau da, 30 eguneko epea pasata, ondoriorik gabe geratzen dira bai kanporatze-agindua, bai babes-eskatzailearen administrazio-egoera irregularra, errekurtsioa ebatzi arte. Izan ere,

errekurritzeak dakarren ondorioa da eskatzaile izaera bereganatzen dela berriz ere<sup>67</sup>. Hala ere, esan bezala, ondorio hori ez da guztiz zuzena, Espainiako agintariek babes-eskatzailearen eskubideak berresten baitituzte soilik errekurtsioa jarri eta eteteko kautela-neurria eskatzen denean, betiere hilabeteko epea itxaron behar delarik etete hori efektiboa izateko. Ikus dezagun zergatik gertatzen den hori.

## 6.2. EUOPAR ZUZENTARAUEN TRANSPOSIZIOA

Zuzentarauak EBren xedapen mota bat dira, zeinak ez diren automatikoki sartzen Estatuaren barne-zuzenbidean; aitzitik, epe jakin batean helburu bat lortzera behartzen dute, eta haien hautatuko dituzte helburu hori lortzeko bitartekoak eta modua. Hala ere, zuzentarauek zuzeneko eraginkortasuna ez izateak ez du esan nahi Estatuaren borondate pean geratzen denik. Praktikak erakusten digu ez dela lehen aldian Espainiak ez duela betetzen Europako zuzenbidea barne-zuzenbidera eramateko betebeharra. 2009an, EBJAk kondenatu egin zuen, transposizio-betebeharrak ez betetzeagatik<sup>68</sup>. Hilabete batzuk geroago, Espainiak egungo Asilo Legea eman zuen. 2015ean, Europako Batzordeak bi gutun bidali zizkion Espainiari, zuzentarauren transposizioa ez betetzeagatik; hala ere, oraindik ez du egin.

Nahiz eta Europako Batzordeak EBJAra jo dezakeen bere betebeharrak betetzen ez dituzten Estatu kideei zehapena eskatzeko, bidegabeko egoera horrek partikularrak kaltetu ez dezaten, EBJAk erabaki du arau horiek zuzeneko eragina dutela eta zuzenbide nazionalak jaso gabe aplikatu daitezkeela, betiere baldintza jakin batzuk betetzen badira. Batetik, zuzentarau horrek berak barne-zuzenbiderako transposizioa egiteko ezarri zuen epea amaituta egotea, eta, bestetik, kasuan kasuko arauak baldintzarik gabeak, argiak eta zehatzak izan behar dutela. Bi baldintza horiek betetzen badira, zuzentarauek eraginkortasun zuzena izango du. Hau da, Europako araua barne-zuzenbidean txertatzen da, eta, behar izanez gero, ordeztu egiten du. Hori horrela izanik, Harrera eta Prozedura Zuzentarauek xedatu zuten Estatu kideek xedapenak 2015eko uztailaren 20a baino lehen jarri behar zituztela indarrean<sup>69</sup>. Epe hori Asiloaren Legea aldatu gabe eta zuzentarauek betetzea ahalbidetzen duten xedapenak eman

---

<sup>67</sup> Aragoiko Gobernuak. Ekonomia, Plangintza eta Enplegu Saila. (2020). *Información sobre denegación de solicitudes de protección internacional*.

<https://acogidasalamanca.files.wordpress.com/2021/03/instruccion-inaem-denegacion-pi.pdf>

<sup>68</sup> EBJA (Bosgarren Sala), 2008ko uztailak 9, *Comisión de las Comunidades Europeas contra reino de España*, C-272/08.

<sup>69</sup> Prozedurari buruzko 2013/32/EB Zuzentarauren 51. artikulua



gabe amaitu da. Espainiaren jarduerarik ezaren aurrean, zuzentaraua aplikatzeko bigarren baldintza betetzen den egiaztatu behar da. Arauak argiak, zehatzak eta baldintzarik gabeak direla ondoriozta daiteke, eta, beraz, partikularrek Espainiaren aurrean alega dezaketela.

Gainera, EBJAk dio, asiloa ukatzen duen ebazpen baten aurka lehen errekurtsio judiziala jartzeak etendura-ondorio automatikoa izan behar duela beti. Ildo beretik, erabaki du Estatu kideei dagokiela errekurtsioaren erabateko eraginkortasuna bermatzea<sup>70</sup>. Ondorioz, nazioarteko babes-eskaerak ukatzearen aurkako errekurtsioek etete-ondorio automatikoa izan behar dute arau orokor gisa, zuzenean aplikatu behar direlako zuzenbide nazionalean sartu ez diren SECA zuzentarauak; Herrerari buruzko 2013/33/EB eta Prozedurari buruzko 2013/32/EB. Alegia, Espainian, eskatzaileek herrialdean egoteko eskubidea dute errekurtsioak izapidetzen diren bitartean, eta eskubidea dute dokumentatuak izateko eta lanean jarraitzeko, ebazpen baten zain dauden bitartean<sup>71</sup>, nahiz eta praktikak erakutsi alde batetik ez dituztela dokumentatzen, errekurtsioa bera izanik erakusteko duten ziurtagiri bakarra, eta bestetik, lan-baimena ez dela jasotzen ezezko ebazpenaren eraginkortasuna etetea eskatzen denetik hilabeteko epea pasa arte, administrazio isiltasun positiboaren bidez. Lan-baimena mantentzeko eskaera ez litzateke kautelazko neurri gisa izapidetu behar, errekurtsioen etete-ondorioa orokorra baita, baina noski, Espainiar Estatu babes-eskatzaile gehienek ezagutzen faltan babesten da halako erabakiak hartzerakoan. Are gehiago, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) Espainia behin baino gehiagotan kondenatu du nahitaezko irteera automatikoki ez eteteagatik mugan asilo-eskaerak izapidetzeko ez onartzearen aurkako errekurtsioaren kasuan, errekurtsio eraginkorrerako eskubidea urratzen duena<sup>72</sup>.

---

<sup>70</sup> EBJA, 2018ko ekainak 19, *Sadikou Gnandi c. État belge*, C-181/16. Eskuragarri: <https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?jsessionid=9AB2B2F1364C7E718B6262FFCC913707?text=&docid=203108&pageIndex=0&doclang=ES&mode=lst&dir=&occ=first&part=1&cid=37365>

<sup>71</sup> EBJA, 2018ko irailak 26, *Raad Van*, C-175/17. Eskuragarri: <https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?docid=227722&text=&dir=&doclang=ES&part=1&occ=first&mode=DOC&pageIndex=0&cid=5144447>

<sup>72</sup> GEEA, 2017ko urriak 3, *N.D. y N.T. c. España*, 8675/15 eta 8697/15 demandak. Eskuragarri: <https://www.mjusticia.gob.es/es/AreaInternacional/TribunalEuropeo/Documents/Sentencia%20de%20Gran%20Sala%20en%20N.D.%20y%20N.T.%20v.%20Espa%C3%B1a.pdf>

## 7. EB-TURKIA AKORDIOA

EB sorrarazi zuten printzipioak elkartasunaren eta erantzukizun partekatuen printzipioa baziren ere, nahiko zaila izan zen Estatu kideen arteko banaketa-kuotak ezartzea eta hauek errespetatzea. Horregatik, 2016ko martxoaren 19an, komunikabideek aurreko egunean Europar Batasuneko eta Turkiako Errepublikako akordioaren berri eman zuten<sup>73</sup>. Hala ere, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu ez den testu horren izaera juridikoak zalantza asko sortu ditu. Izan ere, aipatzen ari garen akordioa teknikoki adierazpen hutsa da, ez baititu jarraitzen legezko indar hori izateko akordio edo itun batek jarraitu beharko lituzkeen urratsak, alegia, lehenik eta behin Europako Parlamentuak onartu eta ondoren Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzea. Eta, beraz, prentsa-komunikatu bat izango litzateke, inolako loturarik eta lege-indarririk gabea, baina, bestetik, akordiotik abiatuta sortzen diren legeak edo lege-aldaketak, badute betebeharrak sortzeko beharrezko indarra<sup>74</sup>.

Akordio hau ez da EBak egin duen bakarra, izan ere, aldebiko akordioak egin ditu Maroko, Argelia eta Mauritania bezalako herrialdeekin ere. Azken honekin egindakoa adibidez, 2003an sinatu zen, helburu zuelarik Sahara hegoaldeko hainbat herrialdetako pertsonak bertara itzultzea, hala nola, Maliko edo Senegalgo pertsonak<sup>75</sup>.

EB-Turkia akordioa, *one to one* (1:1) ere deiturikoa, EBren eta Turkiaren arteko lankidetzaren indartzeko neurriak aurreikusten dituen Baterako Ekintza Planaren barruan kokatzen da, *migrazio-krisiari* konponbideak emateko helburuarekin eginikoa. Turkiak honen bidez, konpromisoa hartzen du egoera irregularrean dauden migratzaileen eta Turkiatik Greziara iritsitako babes-eskatzaileen itzulketa azkarra onartzeko, baldin eta babes-eskaerak onartezintzat jo badira. Bestalde, EBk konpromisoa hartzen du Turkiari funtsak emateko, bisatuen liberalizazioarako ibilbide-orriaren betearazpena bizkortzeko eta Turkia EBra atxikitzeko negoziazioak suspertzeko<sup>76</sup>. Ikus dezagun zertan oinarritzen diren baldintza trukatu horiek.

---

<sup>73</sup> Akordio terminoa erabiliko da martxoaren 18an hartutako dokumentua aipatzeko, nahiz eta Europako erakundeek dokumentu honi buruzko argitalpenetan, «akordioa» eta «adierazpena» terminoak erabili dituzten.

<sup>74</sup> LORCA CÁNOVAS, Patricia. (2016). “*El acuerdo entre la Unión Europea y Turquía...*”, op. cit., 20. or.

<sup>75</sup> CEAR. “*Desplazamientos forzados...*”, op. cit., 22. or.

<sup>76</sup> CEAR. (2016). *Informe relativo al acuerdo Unión Europea-Turquía adoptado el 18 de marzo de 2016 y las consecuencias de su aplicación en los derechos de las personas migrantes y refugiadas*. 3. or. <https://www.cear.es/wp-content/uploads/2016/05/INFORME-COMISARIO-EUROPEO-DDHH.pdf>

## 7.1. EB-TURKIA AKORDIOAK JASOTZEN DITUEN BALDINTZAK

Lekualdatze masiboei aurre egiteko Turkiak jarritako baldintzak hainbat izan ziren. EBk konpromisoa hartu zuen alde batetik, 3.000 milioi euro gehiago transferitzeko dagoeneko konprometituta dauden 3.000 milioietara, Turkiako herritarrentzako bisen beharrezakoa kentzea, eta azkenik, Turkia EBra atxikitzeke kapituluak irekitzen jarraitzeke konpromisoa hartzea. Turkiak 1987an eskatu zuen EBn sartzea, eta, horretarako, “Kopenhageko irizpideak” bete behar ditu. Oraingoan, ez ditu lortu eta ez dirudi lortzen erraza izango denik.

EBak hartzen dituen konpromiso horien truke, Turkiak hitzarmen honetan duen zeregina bere herrialdetik Greziara igaro diren eta honako hiru kategoria hauetako bat betetzen duten migratzaile guztiak Turkiara itzultzean datza: 1) Grezian nazioarteko babes eskatzen ez dutenak, 2) nazioarteko babes eskatzen dutenak eta ebaluazio baten ondoren funtsik gabekotzat jotzen direnak edo 3) onartezintzat jotzen diren eskaerak. Beraz, Turkiatik Greziako uharteetara iristen direnak eta hiru baldintza horietako bat betetzen dutenak Turkiara itzuliko dira, eta, era berean, itzultzen den migratzaile bakoitzeko, Turkiak errekonozitutako errefuxiatu bat bueltatuko da. Truke hau ordea, migratzaileak masiboki itzultzeke aitzaki bat besterik ez zen, izan ere, Turkiak EBk egin beharreko lana egingo zuen, azken honek jakinda bidalitako guzti horietatik oso gutxik lortuko zutela errefuxiatu estatutuaren aitortpena, aurrerago ikusiko dugun bezala. Akordioaren testuan adierazten denez, Turkiari egindako itzulketa horiek nazioarteko eta Europar Batasuneko legedia errespetatuz egingo dira. Hala ere, ezinbestekoa da “onartezintzat jotzen diren eskaerak” dioen 3. kategoria horri erreparatzea; hitzez hitz aipatzen ditut Kontseilu Europarraren Bileraren ondorioak<sup>77</sup>: *“Turkiatik Greziara igarotzen den migratzaile baten asilo-eskaera onartezintzat jo daiteke, «asiloko lehen herrialdea» edo «hirugarren herrialde segurua» kontzeptuan oinarrituta, Europako eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorri»*<sup>78</sup>.

Beraz, Greziako babes-eskatzaileei prozedura bizkorra ezarriko zaie, eta prozedura horren arabera, ez da beharrezkoa eskaeraren funtsa aztertzea. Izan ere, prozedura horrek aukera ematen du babes-eskaera bat onartezintzat jotzeko, hirugarren herrialde batek (kasu honetan Turkiak) azterketa hori egingo lukeela edo babes nahikoa emango lukeela uste

<sup>77</sup> Europar Kontseilua. (2016). *Reunión del Consejo Europeo (17 y 18 de marzo de 2016) – Conclusiones*. 3. ondorioa. <https://data.consilium.europa.eu/doc/document/ST-12-2016-REV-1/es/pdf>

<sup>78</sup> LORCA CÁNOVAS, Patricia. (2016). *“El acuerdo entre la Unión Europea y Turquía...”*, op. cit., 19-20 or.

denean, Zuzentarauaren 35. eta 38. artikuluetan jasotako “hirugarren herrialde seguruaren” edo “asiloko lehen herrialdearen” printzipioaren arabera.

Printzipioz, hirugarren herrialde segurutzat hartuko da 1951ko Genevako Konbentzioa berretsi duen herrialde oro, non giza eskubideak eta ez itzultzeko printzipioa errespetatzen diren. Baina, gogoratu behar dugu Europako migrazio-politikak kanpora atera direla Europar Batasuneko kide ez den herrialde batera, eta, beraz, ez duela bere ordenamendu juridikoan Giza Eskubideen arloko Europako araudia.

## 7.2. TURKIA HIRUGARREN ESTATU SEGURU GISA

Lehenik eta behin, Turkia herrialde segurutzat hartzeko baldintzak betetzen dituen aztertuz gero, Turkiak bermatu beharko lieke itzulitakoei ez dagoela arriskuan ez bere bizitza ez askatasuna. Frogatu beharko da ez dagoela kalte larriak jasateko arriskurik, *non-refoulement* printzipioa errespetatzen dela, nazioarteko babesa eskatzeko aukera dagoela, eta, azkenik, lege nazionalaren babesa eta Giza Eskubideen arloko nazioarteko betebeharrak betetzen direla, 2013/32/UE Zuzentarauaren 38. artikuluan jasotzen den bezala. Hasteko, Turkiak 1951ko Genevako Konbentzioa berretsi izanak, baina Europako jatorria ez duten errefuxiatu guztiekiko muga geografikoari eusteak, berez, Zuzentarauaren 39.1. artikuluko lehen baldintzaren ez betetzea dakar, beraz, zuzenean ez lituzke beteko hirugarren Estatu seguru europartzat jotzeko betekizunak<sup>79</sup>. Gainera, Turkiak 2016ko uztailaren 15ean estatu-kolpe saiakeraren ostean, Giza Eskubideen Europar Hitzarmenaren aplikazioa indargabetzea erabaki zuen, eta 2018ra arte, ez zuen indargabetzeko komunikatu hori kentzeko nahia jakinarazi, hirugarren betekizunaren ez betetzea suposatzen duena. Hau hala izanik, zaila da Turkia hirugarren Estatu segurutzat jo ahal izatea. Besteak beste, kontuan hartzen badugu akordio hau sinatzen ari ziren unean bertan Turkiak Siriarekin mugak itxita zituela, eraso terroristetatik ihesi zihoazen ehunka siriarri sarrera eragotziz, ez dirudi bere bizitzaren edo askatasunaren bermatzailea zenik. Hala ere, azter dezagun Estatu seguru gisa aintzat hartua izan dadin bete beharreko 38. artikuluko baldintzak banan banan.

---

<sup>79</sup> 2013/32/UE Zuzentarauaren 39.2. artikulua: “Hirugarren herrialde bat, 1. paragrafoaren ondorioetarako, honako kasu hauetan bakarrik hartu ahal izango da hirugarren herrialde segurutzat: a) Genevako Konbentzioa muga geografikorik gabe berretsi du eta haren xedapenak betetzen ditu; b) legeak agindutako asilo-prozedura badu, eta c) Giza Eskubideen eta Oinarritzko Askatasunen Europako Hitzarmena berretsi du, eta haren xedapenak betetzen ditu, errekurso eraginkorrari buruzko arauak barne”. (Itzulpen propioa, autoreak egina).

Abiapuntu gisa, ezinbestekoa da argitzea, aurretik esan bezala, Turkia 1951ko Genevako Konbentzioaren parte den arren, 1967ko New Yorkeko Protokoloa berrestera, salbuespen bat gehitu zuela. Alegia, Protokoloari atxikitzean, 1968ko uztailearen 31n, berariaz mantendu zuen muga geografikoaren deklarazioa, ikusiko dugun bezala, hainbat ondorio izan zituenak<sup>80</sup>.

Hirugarren Estatu segurua den edo ez ondorioztatzeko aztertu beharreko lehen baldintza **kalte larriak jasateko arriskua** da. Turkiar Estatuak akordioa indarrean sartu aurretik jada jaso zituen GEEAren kondenak hainbat eskubideren urraketa larriagatik, ez soilik torturaren debekua bortxatzeagatik, baizik eta tratu anker edo apelasgarriak jasateko debekua ez errespetatzeagatik eta horri buruzko salaketak ez ikertzeagatik ere. Egia esan, Giza Eskubideen eta Turkiako agintarien arteko harremana ez da inoiz estuegia izan. Gainera, Human Rights Watch eta Amnesty International erakundeek txostenak argitaratu dituzte, muga zeharkatu nahian errefuxiatuak hil dituzten tiroketak salatze<sup>81</sup>.

Turkiak Giza Eskubideen Europar Hitzarmenaren aplikazioa indargabetzeak ere agerian uzten du eskubideen errespetuaren aurrean hartzen duen papera. Era berean, ez dirudi segurua denik LGTBI bezalako kolektibo ahulenentzat, non, agintarien aurrean jazarpena eta bortxaketak salatu arren, hainbat hil dituzten<sup>82</sup>. Adingabeei dagokienez, adingabeak babesten espezializatutako erakunde humanitarioek Turkiako herrialdean haurren esplotazioarekiko tolerantzia salatu dute, eta arropa-tailerretan eta jatetxeetan lan egitea salatu dute.

Aipatutako bigarren baldintzari erreparatzen badiogu, Turkia, dirudienez, ez da **non-refoulement printzipioa** bermatzen ari, eta Turkiako Hatay probintziatik ehunka errefuxiatu kanporatu dituzte, emakumeak eta haurrak barne. Horri dagokionez, ezin konta ahala txostenen arabera, Turkia, FRONTExen eskutik eta NATOko itsasontziak Egeo itsasoan

---

<sup>80</sup> Turkiaz gain, Kongok, Madagaskarrek eta Monakok ere eremu geografikoaren muga mantendu zuten Protokoloaren atxikipena egiterakoan. Errefuxiatuen estatutuari buruzko 1951ko Konbentzioa eta 1967ko Protokoloa osatzen duten Estatuon zerrenda hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2001/0506.pdf>

<sup>81</sup> Amnistía Internacional. (2021eko ekainak 23). *Entre los miles de personas a las que se niega la entrada a Turquía hay civiles sirios heridos que huyen del asalto a Alepo*. <https://www.amnesty.org/es/latest/press-release/2016/02/injured-syrians-fleeing-aleppo-onslaught-among-thousands-denied-entry-to-turkey/>

<sup>82</sup> BANKS, Martin. (2016ko abuztuak 5). "Turkey: Murder of gay Syrian refugee raises further doubts over EU deal". *The Parliament Magazine*. <https://www.theparliamentmagazine.eu/news/article/turkey-murder-of-gay-syrian-refugee-raises-further-doubts-over-eu-deal>

hedatzearen eskutik edo Greziarekin lankidetzan, erregularki sartuta dago itzultze automatiko eta kolektiboen gertakarietan, eta beldur hori indartu egiten da herrialde horrek GEEHren 4. Protokoloa berretsi ez duelako, Greziak egin ez duen bezala<sup>83</sup>. Beraz, praktikan ez dago babes-eskaeren banakako azterketa bermatzen duen babesik, eta, beraz, kanporatze kolektiboak gerta daitezke, ukatutako babes-eskatzaillei mota bereko erabakia eman dakiekeelako nahiz eta inguruabar ezberdinak eman, haien egoera ez delako banan-banan aztertzen. Estatu honek gainera, EBz kanpoko Estatu gehiagorekin ditu sinatuta berronarren-akordioak, alegia, EBk berak uko egiten dio bere erantzukizunari, eta beste herrialde batean jartzen du, mugaren beste aldean, zeinak, era berean, gauza bera egin baitezake jatorrizko herrialdeetarako<sup>84</sup>. Beraz, Turkiara itzultzea baimentzeak bere herrialdeei itzultzeko aukera zabaltzen du, eta horrek *non-refoulement* printzipioa urratzea ekar lezake berekin, baldin eta bere bizitzak arriskuan badaude.

Zuzentarauak argi adierazten du Estatu seguru gisa aintzat hartzeko, **errefuxiatu-estatutua edo nazioarteko babesa eskatzeko aukera erreala** egon behar dela, alegia, Genevako Konbentzioaren arabeko babesa jasotzeko aukera erreala. Nahiz eta Turkiako atzerritarrei eta nazioarteko babesari buruzko Legea 2014ko apirilean jarri indarrean, GEEAk kasu askotan jarri ditu agerian Turkiako sistemaren gabeziak, eta azpimarratu du ez dituela bete nazioarteko betebeharrak. Gainera, urtero Turkiara nazioarteko babesa eskatzen duten milaka pertsona iristen diren arren, Turkiako Estatuak muga geografikoa mantentzen du 1951ko Genevako Konbentzioan, bere lege nazionalean ere muga hori barneratuz, eta, beraz, Europako herritarrei baino ez die nazioarteko babesa eskaintzen. Europarrak ez diren errefuxiatuei berriz "aldi baterako asiloa" ematen zaie, herrialdean egoteko aukera emango diena, ACNURek babes-eskaera aztertzen duen bitartean. Ebazpena aldekoa denean, errefuxiatuak errefuxiatu gisa onar daitezke edo beste herrialde batean birfinkatu. Kontrakoa izanez gero, eskaera ukatu egingo zaie, eta, beraz, Turkiatik alde egin beharko dute<sup>85</sup>. Era berean, Turkiak gogortasunez tratatzen ditu nazioarteko babesa eskatzen dutenak atxiloketa-aldian eta eskaera ebatzi arte, eta, beraz, atxiloketa-baldintzak benetako

---

<sup>83</sup> BERTOMEU NAVARRO, Andrea. (2021). "*Reconocimiento y tutela...*" op. cit., 325-326. orr.

<sup>84</sup> ANDRADES GONZÁLEZ, Amanda; GANDARIAS GOIKOETXEA, Itziar; FERRI YÁNEZ, Ana: eta DE LUCAS LARREA, Beatriz. (2016). "*Vidas que cruzan fronteras...*" op.cit., 14. or.

<sup>85</sup> Aldi baterako babes hori oso kritikatu izan da errefuxiatuen aldeko erakundeengatik, jasan behar duten itxarote-denbora ezin delako justutzat edo eraginkortzat hartu. Eskatzaileek hitzordu bat behar dute, Turkiako polizia-bulegoetako atzerritartasun-sailean eskatzen dena, eta Izmir bezalako hirietan, babes-eskatzaile gehien dituztenetako bat, astean behin bakarrik ematen da hitzordua, eta, beraz, itxaronaldiak 3 eta 4 astetik gorakoak dira; beraz, ordura arte ez dute onurarik jasotzeko aukerarik, hala nola, osasun publikorako edo hezkuntzarako sarbidea.

tratu ankerrak edo apalesgarriak dira.

Azkenik, **lege nazionalaren babes eta Giza Eskubideen arloko nazioarteko betebeharrak betetzea** arretaz aztertzen baditugu, hainbat ondorio atera ditzakegu. Turkiak bere herritarren eta herritar ez direnen Giza Eskubideak errespetatu eta babesteko historia irregularra du. GEEAk deklaraturako Turkiako urraketen erregistroak erakusten du auzitegi horren ebazpen judizial gehienak jaso dituela 1959tik 2016ra (3.386 edo guztizkoaren %16,5 inguru), GEEHko gainerako Estatu kideak nabarmen gaindituz. Turkiak zigorra jaso du hainbat eskubide urratzeagatik: bizitzeko eskubidea (2. art. GEEH), tortura-kasuak (3. art. GEEH), askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea (5. art. GEEH), ekitatezko prozesurako eskubidea (6. art. GEEH), pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea (9. art. GEEH), errekurtsio eraginkorrerako eskubidea (13. art. GEEH) eta diskriminazio-debekurako eskubidea (14. art. GEEH); eskubide horiek guztiak garrantzi berezikoak dira Estatu bat segurutzat hartzeko<sup>86</sup>.

Nahiz eta Turkiak ez dituen betetzen Europako araudian herrialde segurutzat hartzeko eskatzen diren baldintzetako bat bera ere, jatorri seguruko herrialdeen Europar Batasuneko zerrenda komuna betetzen duten herrialdeen artean dago<sup>87</sup>. EB-Turkia akordioa justifikatzeko, babes-eskaerak banan-banan aztertuko direla argudiatzen da, Europako araudiaren eta ez itzultzeko printzipioaren arabera, eta noski, Turkia jatorrizko hirugarren Estatu seguru gisa jasotzen da. Hala ere, errefuxiatu-estatutua zehazteko prozesua inguruabar indibidualetan oinarritzen den heinean, jatorrizko herrialde bat ere ez litzateke segurutzat jo behar, oro har. Izan ere, herrialde horiek, askotan, ez dituzte kontuan hartzen babes-eskaeretan beharrezkoak diren alderdi guztiak, eta, beraz, errefuxiatu-talde batzuen diskriminazioa eragin dezakete, edo, are gehiago, ondoren pertsonak jatorrizko herrialdera kanporatzea, Genevako Konbentzioan jasotako ez-itzultzearen printzipioa urratuz. Akordio hau itzulketa kolektiboak egiteko modu bat eman lezake, gure ordenamendu komunitarioan erabat legez kanpokoa den prozedura, baina, horrez gain, 1:1 Plana ez da erabat egokitzen Genevako Konbentzioaren 3. artikuluan jasotako diskriminaziorik ezaren printzipiora. Dirudenez, Dublinekin saihestu nahi zen Asylum Shopping delakoak, orain, EBk egiten du, Europara zein pertsona sar daitekeen eta nor ezin daitekeen hautatuz, eta, horrela, nire ustez, diskriminazio bat gauzatuz.

<sup>86</sup> BERTOMEU NAVARRO, Andrea. (2021). “*Reconocimiento y tutela...*” op. cit., 328 or.

<sup>87</sup> Akordioa egindako momentuan jatorrizko herrialde seguruaren EBren zerrenda bateratua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/32/EB Zuzentarauaren ondorioetarako, 2015eko irailaren 9koa: <https://www.senado.es/web/expedientappendixblobservelet?legis=10&id1=196875&id2=1>

Azaldutakoaren argitan, ondoriozta dezakegu, lehenik eta behin, 2016ko martxoan Europako agintarien eta Turkiako gobernuaren artean egindako akordioa Genevan sinatutako asilo-eskubidearen erantzukizunaren kanporatze bat dela, bai eta Europar Batasunaren sorrera bultzatu zuten baloreena ere. Akordioaren legezko oinarria Turkia hirugarren herrialde segurua delako presuntzioan oinarritzen da, eta hori horrela ez dela frogatuta geratzen da behin eta berriz, Turkiak *non-refoulement* printzipioa betetzen ez duela frogatu den bezala. Bere herritarrentzat segurua ez den herrialdea, zaila da sinestea milioika migratzaile eta errefuxiatuentzat segurua izango dela.

## 8. ONDORIOAK

2015eko errefuxiatuen krisia mugarri bat izan da asilo-politikari dagokionez. 2015. urtean etorkinen etorrera masiboak zalantzan jarri zuen SECAren funtzionamendua eta Dublin III Erregelamenduaren eraginkortasuna. Bigarren Mundu Gerraren ondorioei aurre egiteko sortutako Genevako Hitzarmenak agerian utzi du asilo-arloko araudia ez dela egungo beharretara egokitzen. Nahiz eta nazioarteko babesa pixkanaka zabaltzen joan den urteetan, gaur egun ere jende asko babesetik kanpo geratzen da, errefuxiatu kontzeptuaren interpretazio murriztailea dela eta. Indarkeriaren kontzeptu hertsiaz haratago, indarkeria fisikoa edo zuzenekoa kasu, badira beste indarkeria mota asko ere, duela hamarkada batzuetatik hona gertatzen ari direnak. Hala, indarkeriaren kontzeptu zabala, besteak beste, ingurumen-indarkeria edo muturreko pobrezia, ez da onartzen pertsona batek nazioarteko babesa merezi duela pentsatzeko arrazoitzat.

Errefuxiatu kontzeptuaren interpretazio murriztaile horren ondorioz, gure mugetara iristen diren pertsonak, babesa merezi duten pertsonak edo pertsona *illegal* bezala sailkatuak dira. Horren ondorioz, beroan egindako itzultzeak bezalako praktikak eraman dira aurrera, oinarrizko eskubideak ez ezik, *non-refoulement* printzipioa ere urratuz. Horrek Europako inkongruentzia handienetako batera garamatza: legezko bideak ixtea, gero Europan sartzeko legez kanpoko bideak erabiltzea aurpegiartzeko. Nazioarteko babesa sarrera-herrialdean edo jatorrizko herrialdeetako enbaxadetan eska daiteke. Arazoa da alde batetik, herrialdeetara sartzeko bideak itxi egiten direla nazionalitate jakin batzuentzat, eta bestetik enbaxadek gatazka-egoeretan atak ixten dituztela, hain zuzen ere haien presentzia beharrezkoagoa denean. Legezko bide horiek existitzen ez diren heinean, beren herrialdetik ihes egiten duten



pertsonak beste bide arriskutsu batzuk hartzera behartuak dira. Asko itsasora botatzen diren bitartean, beste asko hesiak altxatzen dituzten eta bortizki kanporatzen dituzten herrialdeetara sartzen saiatzen dira.

Itsasoko salbamendua, beraz, Europar Batasunaren helburu nagusia izan beharko litzateke, eta are gehiago pertsona horientzat bide legalak eta seguruak aurreikusten ez direnean. Horrela, modu bakarria Mediterraneoan zeharkatzen duten pertsonen salbamendurako diru eta baliabide gehiago bideratzea litzateke, kanpoko mugak "babesteko" eta blindatzeko erabili beharrean.

Europar araudiari dagokionez, SECAREN zutabeetako batek, Dublingo III Erregelamendua, funtzionatu gabe jarraitzen duela agerikoa da, munta handiko arazoak baititu. Egia da erreforma bakoitzak neurri interesgarriak sartu dituela, baina horietako bat ere ez da nahikoa izan EBk erregelamendu hori sortzerakoan lortu nahi zuen helburu nagusia lortzeko: errefuxiatuak EBren barruan banatzeko bidezko sistema bat lortzea. European ez dago errefuxiatuen ondoriozko krisirik, Asiloaren Europako Sistema Bateratuaren porrot handia baizik. Arazoa ez datza soilik Dublin III Erregelamenduaren edukian, baizik eta Estatu kideen araudiaren harmonizazio ezan. Estatu kide bakoitzak araudi ezberdin bat eskeintzeak eragiten du asilo-sistema komunaren porrota. EBn errefuxiatuen sistema parekidea lortzea eragozten duen funtsezko arazoetako bat bigarren mailako mugimenduak deiturikoak dira. Herrialde guztiek asiloari buruzko araudi bera eskaintzen ez dutenez, eta araudi batzuk besteak baino askoz hobeak direnez, errefuxiatuak legez kanpo lekualdatzen dira Estatu kide batetik bestera. Arazo hori geldiarazteko, berdina dio Dublingo Erregelamenduan egiten diren erreforma guztiak, irtenbide bakarria litzateke herrialde guztiek asilo-arloko araudi bera eskaintzea. Horrela, pertsona batek tratua bera eta aukera berberak jasoko lituzke, bere eskaera zein herrialdean aztertuko litzatekeen kontuan hartu gabe, eta, ondorioz, edozein eskatzailearentzat axolagabea izango litzateke eskaera izapidetzeko ardura duen herrialdea. Hori da EBrentzat hain kaltegarriak diren bigarren mailako mugimenduekin amaitzeko modu bakarria. Beraz, behin Estatu kide guztien asilo-sistemen harmonizazioa eginda soilik da posible hitz egitea Dublin III Erregelamenduaren erreforma batetaz.

Beraz, EBk sistema komun hori lortzen duen unean kokatuta, orain Dublin III Erregelamenduaren Erreformari buruzko gogoeta egingo dugu. Nire ustez, Erregelamendu erabat berria sortzearen alde egitea da benetan egin beharrekoa. Araudi berriak egungo irizpideak alde batera utzi beharko lituzke, bereziki hainbeste arazo sortzen dituen

iritsiera-irizpidea, eta, horren ordean, banaketa-irizpide erabat berriak eta Estatu kide bakoitzaren gaitasun fisiko eta ekonomikoaren arabera eraikiak ezarri beharko liriateke.

Hala ere, EBk, Estatu kideen asilo-sistemak bateratzen saiatu beharrez, nahiago izan du bere erantzukizuna kanpora ateratzea, Turkiarekin 2016ko martxoan egindako akordioaren antzera, Europar Batasunaren sorrera ekarri zuten balioak zalantzan utzita. Akordio horren bidez, *non-refoulement* printzipioaren urraketa zuzitzeaz gain, Turkiak hirugarren herrialde seguru gisa duen presuntzioa ere hartzen da oinarri, EBk berak alde aurretik ezarritako irizpideetako bat ere betetzen ez badu ere.

Azkenik, Europako agintariei gogorazi behar diegu pertsonak gerraren infernutik ihesi doazenean eta Turkiaraino iritsi direnean, dena bidean utzita, ez dagoela oztoporik, ezta arriskurik ere, hori ez egiteko. Beraz, birkokatzeak, bide seguruak eta familia-bateratzeak errazten ez diren bitartean, Europar Batasuna izango da beste bide are arriskutsuago batzuk hartzea erabakitzen duten milaka pertsonen heriotzaren erantzulea. Argi dago Nazioarteko eta Europar Zuzenbidea oso ahula dela biktimen defentsan, eta indartsua enpresen defentsan. Baina, hala izanda ere, dagoeneko onartuta dauden eskubideak aplikatzeko eta errespetatzeko ere ez gara gai. Lan honetako puntu bakoitzean frogatu ahal izan dugunez, gaizki deituriko errefuxiatuen krisiak oso konponbide erraza du: nazioarteko babesari buruzko araudia betetzea eta aplikatzea. Krisi hori, beraz, Europar Batasunaren balioen eta printzipioen krisia da, agerian geratzen ari dena Estatu kideen interes faltaren eta borondate maltzurren aurrean. Espero dezagun Europak ez ahaztea errefuxiatuen lehen krisi handia berak eragin zuela, eta europarrak izan zirela gaur egun bizkarra ematen diegun Estatuetan hartutakoak.

## 9. BIBLIOGRAFIA

### 9.1. DOKTRINA

#### 9.1.1. LIBURU ETA MONOGRAFIAK

- ACNUR. *Manual de Procedimientos y Criterios para Determinar La Condición de Refugiado en virtud de la Convención de 1951 y el Protocolo de 1967 sobre el Estatuto de los Refugiados*.  
<https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2011/7575.pdf?view>
- ACNUR. *Declaración del ACNUR sobre la protección subsidiaria a personas amenazadas por violencia indiscriminada, bajo la Directiva de Reconocimiento del Consejo de Europa*. <https://www.refworld.org/es/pdfid/5d7fbfa42.pdf>
- ALDEKOA MONTOYA, Paula. (2018). *Aproximación a la crisis migratoria en la Unión Europea: medidas y sus consecuencias*. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).
- ANDRADES GONZÁLEZ, Amanda; GANDARIAS GOIKOETXEA, Itziar; FERRI YÁNEZ, Ana; eta DE LUCAS LARREA, Beatriz. (2016). *Vidas que cruzan fronteras: un análisis feminista sobre la Frontera Sur*.  
<https://www.cear.es/wp-content/uploads/2021/01/Vidas-que-cruzan-fronteras.pdf>
- Aragoiko Gobernu. *Ekonomia, Plangintza eta Enplegu Saila*. (2020). *Información sobre denegación de solicitudes de protección internacional*.  
<https://acogidasalamanca.files.wordpress.com/2021/03/instruccion-inaem-denegacion-pi.pdf>
- BERTOMEU NAVARRO, Andrea. (2021). *Reconocimiento y tutela del principio de non-refoulement en el derecho de la Unión Europea*. Aranzadi.
- BERTOMEU NAVARRO, Andrea. (2022). *Origen y fundamentos del principio non-refoulement en el marco del Derecho Internacional de las personas refugiadas*. Aranzadi.
- CAMPUZANO, Casilda. (2019). *El derecho de asilo en la Unión Europea: el Reglamento de Dublín y su reforma*. Comillaseko Unibertsitate Pontifizea.
- CEAR. (2006). *Desplazamientos forzados: los Derechos Humanos desde la perspectiva del Derecho de Asilo*.  
[https://biblioteca.hegoa.ehu.eus/downloads/18424/%2Fsystem%2Fpdf%2F2615%2FD desplazamientos\\_forzados.\\_Derechos\\_Humanos\\_Perspectiva\\_Derecho\\_Asilo.pdf](https://biblioteca.hegoa.ehu.eus/downloads/18424/%2Fsystem%2Fpdf%2F2615%2FD desplazamientos_forzados._Derechos_Humanos_Perspectiva_Derecho_Asilo.pdf)

- CEAR. (2016). *Informe relativo al acuerdo Unión Europea-Turquía adoptado el 18 de marzo de 2016 y las consecuencias de su aplicación en los derechos de las personas migrantes y refugiadas*.  
<https://www.cear.es/wp-content/uploads/2016/05/INFORME-COMISARIO-EUROPEO-DDHH.pdf>
- CELIS SÁNCHEZ, Raquel eta AIERDI URRAZA, Xabier. (2018). *¿Migración o desplazamiento forzado? Las causas de los movimientos de población a debate*.  
<https://www.corteidh.or.cr/tablas/32514.pdf>
- DE LUCAS, Francisco Javier; MARÍN, Luisa; ORDÓÑEZ, David; SOBOTOVICOVA, Simona; GONZÁLEZ, Javier; BERTOMEU, Andrea; GOMEZ, Itziar; PÉREZ, Maria Carmen; LA SPINA, Encarnación; BENITO, Leyre; HERNÁNDEZ, Juan; BARBERO, Iker; BÁRCENA, Patricia; BENGOTXEA, Joxerramon. (2016). *Pertsona errefuxiatuen krisia eta bere eragina Europar Batasunean*. Eurobasque.
- HERNÁN SANZ, Ismael. (2016). *La Protección Internacional del refugiado, especial referencia al marco jurídico europeo*. Valladolideko Unibertsitatea.
- HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan. (2009). *Las empresas transnacionales frente a los Derechos Humanos: historia de una asimetría normativa*. Hegoa, Bilbo.  
[https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/uploads/pdfs/79/Empresas\\_transnacionales\\_frente\\_a\\_los\\_derechos\\_humanos.pdf?1488539221](https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/uploads/pdfs/79/Empresas_transnacionales_frente_a_los_derechos_humanos.pdf?1488539221)
- LORCA CÁNOVAS, Patricia. (2016). *El acuerdo entre la Unión Europea y Turquía y el concepto de tercer país seguro aplicado a Turquía*. Comillaseko Unibertsitate Pontifizea.
- OAR. (2022). *Información sobre Protección Temporal Ucrania*.  
[https://www.interior.gob.es/opencms/pdf/2022/Ucrania-Proteccion-Temporal/MININT\\_Prot\\_Temp\\_UCR\\_07.-v2.pdf](https://www.interior.gob.es/opencms/pdf/2022/Ucrania-Proteccion-Temporal/MININT_Prot_Temp_UCR_07.-v2.pdf)
- TORRES, Ana Maria; ALARCÓN, Noemi; eta BÁRCENA, Patricia. (2017). *La Protección Internacional de los solicitantes de asilo; guía práctica para la abogacía*.  
15. or.

## 9.1.2. ALDIZKARI ESPEZIALIZATUETAKO ARTIKULOAK

- BANKS, Martin. (2016ko abuztuak 5). "Turkey: Murder of gay Syrian refugee raises further doubts over EU deal". *The Parliament Magazine*. <https://www.theparliamentmagazine.eu/news/article/turkey-murder-of-gay-syrian-refugee-raises-further-doubts-over-eu-deal>
- MACHADO CAJIDE, Landy. (2013). "Aproximaciones sobre el surgimiento y evolución histórica del estatuto de los Refugiados". *Anuario Digital CEMI*. <http://biblioteca.clacso.edu.ar/Cuba/cemi-uh/20131017013000/3landy.pdf>
- SOLANES CORELLA, Ángeles. (2020). "Protección y principio de non-refoulement en la Unión Europea". *SCIO Revista de Filosofía*, 19. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/7724186.pdf>
- URCELAY LECUE, M<sup>a</sup> Cruz. (2016ko martxoak 15). "Acuerdo de dudosa legalidad entre el Consejo Europeo y Turquía sobre la crisis de los refugiados". *LegalToday*. <https://www.legaltoday.com/practica-juridica/derecho-internacional/derecho-union-europea/acuerdo-de-dudosa-legalidad-entre-el-consejo-europeo-y-turquia-sobre-la-crisis-de-los-refugiados-2016-03-15/>

## 9.2. LEGEDIA

### 9.2.1. NAZIOARTEKO LEGEDIA

- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 1948ko abenduaren 10ekoa.
- Errefuxiatuen estatutuari buruzko Hitzarmena, 1951ko uztailaren 28koa (Genevako Hitzarmena)
- Errefuxiatuen estatutuari buruzko protokoloa, 1967ko urtarrilaren 31koa (1967ko New Yorkeko Protokoloa).
- EBren Oinarrizko Eskubideen Gutuna, 2000ko abenduaren 7koa.
- 2001/55/EE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2001eko uztailaren 20koa, lekualdatutako pertsonen joan-etorri masiboetarako aldi baterako babesa emateko gutxieneko arauai eta Estatu kideen artean pertsona horiek hartzeko eta harreraren ondorioak beren gain hartzeko bidezko ahalegina sustatzeko neurriei buruzkoa.
- Kontseiluaren 343/2003 Erregelamendua, 2003ko osatilaren 18koa (Dublin II)
- Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatu (EBFT), 2007ko abenduaren 13koa.

- 2011/95/EB Errekonozimenduaren Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa.
- Europar Parlamentuaren 604/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 26koa (Dublin III)
- Harrerari buruzko 2013/33/EB Zuzentaraua, 2013ko ekainaren 26koa.
- Prozedurari buruzko 2013/32/EB Zuzentaraua, 2013ko ekainaren 29koa.

### **9.2.2. BARNE LEGEDIA**

- 1325/2003 Errege Dekretua, urriaren 24koa, lekualdatutako pertsonen joan-etorri masiboetarako aldi baterako babes-erregimenari buruzko Erregelamendua onartzen duena.
- 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen
- 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena, 2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren.

## **9.3. JURISPRUDENTZIA**

### **9.3.1. NAZIOARTEKO AUZITEGIAK**

- EBJA (Bosgarren Sala), 2008ko uztailak 9, *Comisión de las Comunidades Europeas contra reino de España*, C-272/08.
- EBJA, 2011ko abenduak 21, *Asunto N.S. y Otros*, C411/10 eta C493/10.
- EBJA, 2017ko irailak 6, *Slovak Republic and Hungary v Council of the European Union*, C-643/15 eta C-647/15 gai metatuak.
- EBJA, 2018ko ekainak 19, *Sadikou Gnandi c. État belge*, C-181/16.
- EBJA, 2018ko irailak 26, *Raad Van*, C-175/17.
- GEEA, 2012ko otsailak 23, *Hirsi Jamaa y otros c. Italia* kasua.
- GEEA, 2014ko azaroak 4, *Tarakhel c. Suiza*, 29217/12.
- GEEA, 2017ko urriak 3, *N.D. y N.T. c. España*, 8675/15 eta 8697/15 demandak.

### 9.3.2. BARNE AUZITEGIAK

- AG (Administrazioarekiko Auzien Sala, 5. sekzioa), 2018ko uztailak 9, 1.168/2018 epaia.

### 9.4. BESTELAKO DOKUMENTUAK

- ACCEM. (2022ko apirilak 20). *Datos refugiados 2021: se duplicó la tasa de reconocimiento de protección internacional pero también aumentaron las denegaciones.* <https://www.accem.es/tag/razones-humanitarias/>
- ACNUR. *Cambio climático y desplazamiento por desastres.* <https://www.acnur.org/cambio-climatico-y-desplazamiento-por-desastres.html>
- ACNUR (2022ko apirilak 20). *Derecho de asilo y protección subsidiaria: relación entre los conceptos.* [https://eacnur.org/blog/que-relacion-tienen-el-derecho-de-asilo-y-la-proteccion-subsidiaria/?tc\\_alt=47342](https://eacnur.org/blog/que-relacion-tienen-el-derecho-de-asilo-y-la-proteccion-subsidiaria/?tc_alt=47342)
- ACNUR (2022ko apiriak 20). *Información sobre protección internacional y asilo en España.* [https://eacnur.org/blog/proteccion-internacional-espana-y-asilo-tc\\_alt45664n\\_o\\_pstn\\_o\\_pst/?tc\\_alt=47342](https://eacnur.org/blog/proteccion-internacional-espana-y-asilo-tc_alt45664n_o_pstn_o_pst/?tc_alt=47342)
- ACNUR. *Estados parte de la Convención de 1951 sobre el estatuto de los refugiados y el Protocolo de 1967.* <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2001/0506.pdf>
- Amnistía Internacional. (2021eko ekainak 23). *Entre los miles de personas a las que se niega la entrada a Turquía hay civiles sirios heridos que huyen del asalto a Alepo.* <https://www.amnesty.org/es/latest/press-release/2016/02/injured-syrians-fleeing-aleppo-onslaught-among-thousands-denied-entry-to-turkey/>
- EBko Kontseilua. (2015eko irailak 22). *Decisión por la que se establecen medidas provisionales en el ámbito de la protección internacional en beneficio de Italia y Grecia.* 2015/1601 Erabakia. <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32015D1601&from=ES>
- Europar Kontseilua. (2016). *Reunión del Consejo Europeo (17 y 18 de marzo de 2016): Conclusiones.*

<https://data.consilium.europa.eu/doc/document/ST-12-2016-REV-1/es/pdf>

- Kontseilua (EBko Kontseilua eta Europar Kontseilua). (2023ko urtarrilak 17). *Protección temporal de la UE para las personas desplazadas*. <https://www.consilium.europa.eu/es/infographics/temporary-protection-displaced-persons/>
- NBE (Batzar Nagusia), 2013ko martxoaren 7a, *La tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes*, A/RES/67/161.
- SUAREZ SAPONARO, Jorge Alejandro. (2022ko uztailak 23). *Kiribati. El drama de los refugiados ambientales*. WordPress.com. <https://lapolisuy.wordpress.com/2022/07/23/kiribati-el-drama-de-los-refugiados-ambientales/>